

87

4 euro • 2004ko APIRILA euskal heziketarako aldizkaria

hh

hik hasi

GAIA: KANTURAKO ZALETASUNA •
ELKARRIZKETA: JESUS GARMENDIA
• ESPERIENTZIA: KRAKOVIAKO HAUR
ESKOLAK • ESPERIENTZIA: ELKAR-
BIDE PROGRAMA • EKARPENA




Muga guztien gainetik...



euskaraz!

Bidarraiko
paradisu ttipia

Ezagutu



ERROMATARRAK
EGIPTOARRAK
GREZIARRAK
HISTORIAURREA



10-14
urteko
gaztetxo
zuzendutako
bilduma
interesgarria



TTARTTALO

8



gaia

KANTURAKO ZALETASUNA

Nafarroako eta Gipuzkoako haur kantari txapelketak ospatzen ari direla-eta, haurren kanturako zaletasuna eta txapelketen funtzioa dira aztergai gai honetan. Horrekin batera, telebistak haurrak eta gazteak euskaraz abastera bultzatzen dituen programa ere ikusi dugu.



16

elkarrizketa

JESUS GARMENDIA

Mondragon Unibertsitateko HUHEZI Fakultateko irakasle hau Mendeberrri proiektuaren koordinatzailea da. Irakaskuntza arloan erabateko iraultza dakarren proiektua, hain zuzen ere.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

KANTURAKO ZALETASUNA

16 elkarrizketa

JESUS GARMENDIA

24 esperientzia

Krakoviako haur eskolak ezagutzen

Izaskun Madariaga

26 esperientzia

Elkarbide programa

Ipar-Hegoko eskolen trukeak

28 ekarpena

Hizkuntza testa DBHko ikasleentzat

Pello Etxaniz

32 kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan

AEK eta Soralaruzeko herria elkarlanean herriko haur etorkinak euskalduntzeko

Itziar Aramaio

35 berriak

40 Muga guztien gainetik... euskaraz!

Bidarraiko paradisu ttipia, B ereduari

Bidarraiko eskola publikoa

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408

Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Ainhoa Azpiroz Erredakzioa: Joxe Mari Auzendi, Ixiar Eizaguirre Erredakzio batzordea: Mikel Estorika, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Jaione Apalategi, Abel Ariznabarreta, Bego a Bilbao, Marian Bilbatua, Felix Basurko Aines Duafau, Xabier Isasi, Irene Lopez-Gobi, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erricndo, Iobia Fernandez, Anaia Vazquez, Iontxo Oihartzabal, Juanjo Otaola eta Pruden Sodupe. Administrazioa: Arantxa Gobilu. Diseinua: TRAMGRAF!k Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Argazki Press. Aldizkari honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egokitasun-aitormena du. 2004-III-22.

Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

hik hasik

zure parte-hartzea

ezinbestekoa du
harpide zaitez!

40 euro urtean

10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan

www.hikhasi.com

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena.....1. Deitura.....

2. DeituraTel:.....

HelbideaPosta Kodea.....

Herria.....Herrialdea.....

Ikastetxea.....Herria.....

IFZ-NAN

Aurrezki Kutxa edo Bankua

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

HARPIDETZA
SARIAK
(BEZ barne)

40 euro

hik hasi

Euskal
heziketarako
aldizkaria

Errekalde hiribidea, 59
Aguila eraikina 1. solairua
20.018 DONOSTIA.

GIPUZKOA

Tel: 943/ 37 14 08

Faxa: 943/ 37 21 54



editoriala

apirila

**Eskolan politika bai, alderdikeriarik ez.
Erljioa bai, adoktrinamendurik ez.**



Kontuan hartu behar da hezkuntza dela identitatearen sortzaile garrantzitsua eta gizabanakoaren garapenean eragin handia daukana. Batez ere, gizataldeen hizkuntza eta kultura erreproduzitzen dituelako.

Estatu berrien sorreratik estatua nazioarekin parekatu nahi izan da, nazioa eta estatua gauza bera balira bezala.

Parekatze horrek, hizkuntza bakarra, kultura bakarra eta estatuen antolaketaren administratibo eta juridiko bakarra ezarri zituen; bertan zeuden beste herri, hizkuntza, kultura eta nazioak kontuan hartu gabe.

Duela berrehun urte hamabost milioi biztanle bizi omen zen Frantziako estatua sortu berria eta horietatik hiruk soilik hitz egiten omen zuen frantsesez, gainontzekoen hizkuntza beste bat zelarik.

Gaur egun, aldiz, inor ba al da estatua osoan frantsesa erabiltzera behartua ez denik? Hain epe laburrean nola lortu du hizkuntzen ordezkapena? Piarres Xarrintonen iritziz, eskola izan da estatua erabili duen bitartekorik indartsuena eta ia bakarra denak frantsesetako. Estatu espainiarrean ere halako zerbaite gertatu da, ezta? Nork zioen, bada,

eskolak ez duela apenas eraginik?

Aro industrialetik informatikora pasatzen ari garen honetan, estatuetik egitura handiagoetara igarotzen ari gara; Euskal Herriaren kasuan, Europako antolaketaren barruan kokatuta aurkitzen delarik.

Bestalde, giza mugikortasuna gero eta handiagoa da, eta lurralde batetik bestera aldatzea oso ohikoa bihurtzen ari da. Hainbat hizkuntza, kultura, pentsakera eta sinesmen gero eta nahastuago daude. Eta eskolaren eguneroko lanean aniztasuna, errespetua eta elkarbizitzarako prestaketa lantzen ari da.

Gauzak horrela, zer zentzu du Euskal Herria agertzen den eskola liburu oro baztertzeko proposamenak? Eta zein asmo dago erlijio mota bakarra irakasteko ezarri nahiaren azpian?

Begoña Bilbao, Gurutze Ezkurdia eta Karmele Perez Urraza EHUko irakasleek egindako tesietan garbi agertzen da antolaketa politikoari gero eta

garrantzi handiagoa ematen zaiola testu liburuetan, Euskal Herriaren ikuspegi soziokulturala indargabetzen ari den bitartean.

Paulo Iztuetaren esanetan, gaur egungo testu liburuak aztertuta, % 11n soilik agertzen da Euskal Herriko ikuspegia.

Estatuak indargabetzen ari diren honetan, Euskal Herria bezalako herriek bere horretan darraite. Eta eskolak, berez, bere ingurutik hasi behar du aztertzen eta ikertzen, berarentzat inguru hori delako ezaguna eta hurbila.

Euskal Herria Europako herririk zaharrena da eta, era berean, herri moderno da. Eta kontuan hartu behar da mundu moderno horretan hezkuntza identitatearen sortzaile garrantzitsua dela eta gizabanakoaren garapenean eragin handia daukala. Batez ere, gizataldeen hizkuntza eta kultura erreproduzitzen dituelako.

kronika

Seaskak ahalmen urriko haurrak eskolatzeko diru bilketarako irratsaioa egin zuen. *Irrat'6* izena jarri zioten 6 orduko saioari, eta euskal irratia hauei esker egin zuten martxoaren 13an: Irulegi, Xiberoko Botza eta Gure Irratia. Seaskak ahalmen urriko 11 haur integratzeko xedea du aurten.

Legeak eskubide hori aitortuagatik, Frantziar Estatuak ez dizkio eskaintzen bitarteko guztiak, eta beraz, gastuok Seaskaren gain dira (herritarren laguntza ezinbestekoa bihurtzen delarik). Aurten 53.000 euro beharko dituzte.

Herritarrengana iristeko bide zuzena da irratia. Sei orduko programan arazoaren berri eman zieten entzuleei, Seaskan integrazio lana nola egiten duten azaldu, eta hainbatek bere esperientzia pertsonala kontatu zuten. Entzuleek deitzea aski zuren diru-laguntza emateko. Iaz irratsaioaren bidez 33.000 euro lortu zituzten. Aurten, berriz, 26.100 euro. Kopurua jaistea ulergarria liteke, izan ere, iazko laguntzaileek aurten gutun bidez eman dezakete laguntza, eta askok horregatik ez zuten deituko irratira.



A eta D ereduaren gatazkak

Jaurlaritzak A ereduaren kantzeko ahaleginak egin dituela, susmo hori zuen Carlos Urkijok, orain arte EAEn Madrilgo gobernuaren ordezkari zenak. Susmoa ziurtatu nahian, Urkijok Espainiako Hezkuntza Ministeritzako ikuskatzaileak bidaliko zituela ikastetxeetara erran zuen. Ikuskatu duten lehenengoa Basauriko Velazquez ikastetxea izan da, bertan A ereduaren "bat-batean" desagertu dela-eta. Ikastetxeko zuzendaritzak halaxe jakinarazi zion ikuskatzaileari: datorren ikasturterako A eta B ereduak eskaini zituztela, eta aukera biak izanda guraso gehienek B ereduaren hautatu dutela. 2 urtekoen guraso guztiek hautatu dute eredu elebiduna; 3 urtekoen haurren artean, bostek B ereduaren hautatu dute eta bik baino ez A ereduaren. Basauriko Hezkuntza zinegotziak ere argi utzi nahi izan zuen Jaurlaritzak ez diela A ereduaren kantzeko

agindurik eman, eta B ereduaren aldeko apustua eskolak berak egin duela, gero eta ikasle gutxiago matrikulatzen zirela ikusita.

Basauriko Velazquez eskola ikuskatu ostean txostena idatzi du Espainiako Hezkuntza Ministerioko Goi Ikuskaritzak. Dokumentuan zera eskatzen diote Jaurlaritzari: EAeko eskola guztiek A ereduaren eskaini behar dutela, aukera guztiak eskainiz soilik jakin ahal izango delako zein diren, hizkuntza ereduaren, gurasoen "benetako eskakizunak". Txostenean gehitzen dute, horrek ez omen du esan nahi eskola guztietan hiru ereduak eman behar direnik; Hezkuntza Sailak moldatu omen ditzake plangintza nagusiak, A ereduaren eskatzen duten haur guztiak eskola berean batzeko. Dena dela, hementik aurrera Urkijok ez du orain arteko kargua beteko eta hasitako bide horrekin zer gertatuko den ikuskizun dago.

Bilbon, berriz, euskarazikasteko lekurik gabe gelditu dira 36 haur, inguruko D ereduaren eskola publikoetan ez dagoelako eurentzat tokirik. Haurrok 2 urtetik 5era bitartekoak dira, Bilboko Zazpi Kaleak, Atxuri eta Bilbo Zaharra auzoetakoak. Zozketaz erabaki behar izan dute kanpoan zein geratuko diren Atxuriko Maestro Garcia Rivero eskolan. Gurasoek eta eskolek protestak antolatu dituzte, hau ez omen da-eta haurrak kalean gelditzen diren lehen aldian.

Hainbat superstizio eta beldur kendu dugu ginetik eta, razionalismo hertsiaeren aurreiri-tziak gairdituz, sinbolo eta mitoen mailari ere dagokion balioa emateko heldutasunera iritsiak gara.

Josu Naberan



Euskal Herria testu liburuetatik kendu nahi

“Euskal Herria” kontzeptua testu liburuetatik kentzeko eskatu zion Ibarretxe lehendakariari, gutun bidez, Carlos Urkijok, Madrilgo Gobernuak EAEn zuen ordezkariak. Eskaera honek erantzun katea ekarri du, bai Jaurlaritzatik, bai argitaletxeetatik, bai Ikastolen Elkartetik eta bai sindikatuen aldetik.

Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu Anjeles Iztuetak esan du ez duela inongo asmorik ikasliburuetatik “Euskal Herria” hitza kentzeko: *“Hau sorgin ehiza da, PPren beste inkisizio bat. Lasai, honek guztiak ez duelako hezkuntza sistemaren egunerokoan eraginik izango”*. Carlos Urkijori “kultura gutxi” izatea ere leporatu zion. *“Edo ez du entziklopediarik irakurri edo ez daki zer den Euskal Herria. ‘Euskal Herria’ terminoa entziklopedia guztietan bilatuz gero, zazpi herrialdeak agertzen dira definizioan, eta hori komunitate zien-*

tifikoak onartzen du. Aurrean daukan errealtatea onartu behar du Urkijok”.

Miren Azkaratek eman zuen publikoki Jaurlaritzaren erantzuna: *“Urkijo jaunarentzat euskaldunok ez gara existitzen”*. Eta ironiaz erantsi: *“dioenarekin kontsekuente balitz, Urkijok Encyclopedia Britannicaren ardura-dunei Euskal Herriari buruzko artikulua kentzeko eskatu beharko lieke eta entziklopedia horren erabilera debekatu hezkuntza sisteman”*. Eusko Jaurlaritzaren ustez, Espainiako Gobernuaren ordezkari *“alferrrikakoa”* da eta *“ez du bizikidetasunerako balio”*.

Elkarlanean argitaletxeak eta Ikastolen Elkartek jakinarazi dute ez dutela *“argitalpen prozesua zikinduta ikusi nahi politikakeriak medio”*. Erein argitaletxeak ere nabarmendu du horrenbesteko *“zentsugabekerien”* sutsuak jarrera ideologiko eta politikotatik daudela, *“panderoz eta tortilaz osaturiko nazionalismorik zaharkituenean, hain zuzen”*. EILAS sindikatuek Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari zuzenean eskatu dio *“tinkotasunez euts diezaion”* “Euskal Herria” hitza testu liburuetan agertzeari, eta Urkijori jakinarazi diote EILASeko kideek eguneroko jardunean askatasun osoz jarraituko dutela hitz hori erabiltzen. Zorionez, Espainiako gorteetarako hauteskundeetan emaitzak ikusita, Urkijok ez du jarraituko zegoen karguan.

Martxoan irakasle grebak izan dira Iparraldean eta Nafarroan. Baionan 600 pertsona bildu ziren Raffarinen hezkuntza egitasmoa gaitzesteko. Manifestazioan eskola publiko eta pribatuetako irakasleak bildu ziren, sindikatuok deituta: FAEN, FERC, CGT, SCEN, CFDT, UNSAA, Sud-hezkuntza eta LAB.

Sindikatuaren ordezkariak agiri bateratu bat helarazi zioten suprefetari. Agirian Hezkuntza Saileko diru partiden murrizketa salatzen dute sindikatuek: *“Behin-behineko lan kontratuak bultzatuz heziketaren kalitatea kolokan ezartzen dute”*. Sindikatuek salatu zuten titulazio postua lortu dutenen kopurua %43 jaitسي dela, eta dezentralizazioa dela-eta eskola laguntzaileen postuak arriskuan daudela. Izan ere psikologoak, aholkulariak eta gisako laguntzaileak tokiko arduradunen erabakien menpe geldituko dira, eta ez omen da berdintasuna ziurtatuko irakaskuntzan.

Hizkuntzen atalean salatu zuten euskarak postu murrizketa jasaten duela hezkuntza publikoan, eta euskararen auzia geldirik dutela. Maiatzaren 29rako hezkuntzari buruzko forum bat antolatu dute sindikatuek Baionan.

Iruñean, berriz, Parlamentuaren aurrean bildu ziren musika eta marrazketa irakasleak, Gobernuak ikasgaion ordutegia murriztu nahi duela salatzen. Irakasleek azpimarratu zuten, Madrilgo Gobernuaren Kalitatearen Legea garatzeko Nafarroako Gobernuak egindako dekretuek musika eta marrazketa baztertzen dutela.

Kanturako zaletasuna





Kantagintzarako grina asetze bidean

Ez dakigu kanturako grina piztuko dugun edo ez, baina kantuz hitz egiteko aitzakia polita eman digu haur kantari txapelketak. Ubberrian loreak erretzen diren bezala, haur kantariak hainbat eszenatokitara igotzen hasi dira. Loreek ikusmenerako gozamenaren sortzen baldin badute, entzumenerako plazer iturri dira haurren ahotsak. Mikrofono aurrean paratu, urduritasunari aurre egin eta melodia eza-gunak zein berriak abestera! Kantatzeko chitura galtzen ari dela esaten den honetan, haur eta gazte askoren zaletasunak beldur hori ahanztarazten dute.

Euskal Herrian betidanik egon da lagun artean kantatzeko ohitura. Oraindik ere ohikoa da bazkalostean edo afalostean euskal kantuen doinuekin batera hartzea kafea. Batzuetan soinuarekin edo beste musika tresnaren batekin lagunduta, eta bestetan ahotsarekin soilik. Urtean zeharreko hainbat festa ere kantuen laguntzak ospatzen dira: Gabonak, Santa Ageda eskea, San Juan eskea... Ikastetxeetan ere abestiak erakusten zaizkie haurrei. Baina hala ere... kantatzeko ohitura galtzen ari omen da.

Horri aurre egiteko bide bat baino gehiago dago. Orain arte aipatu ditugun ohitura horiei indar eta gogo gehiagoz eustea izan liteke bat. Oskorri musika taldeak pub ibiltariarekin ireki duen bidea da beste bat, euskal kantuak kantatzeko gogoz dagoen jende andana biltzen baitu. Euskal Kantuzaleen Elkarteak ere hor dago, eta besteak beste, haur eta helduen kantu txapelketak antolatzen ditu, nahi duen orori jendaurrean kantatzeko aukera emanez. ETBk ere haur programaren barruan musikari eta dantzari eskainitako txoko bat badu, eta gaztetxo ugari pasa da bertatik. Gauzak egiten dira, beraz. Guztien helburua ez da berdina izango, baina motorrak martxan daude.



Denen barrunbeetan sartuko ez bagara ere, haur kantari txapelketa eta ETBko Betizu programa gertuagotik ezagutu nahi ditugu. Haurrak eta gaztetxoak gogoz, intenzioz eta ilusioz kantari jartzen dituzten lehiaketa eta programaren barruko doinuak nolakoak diren jakin nahi izan dugu. Eta egiaztatu dugu gauzak ez dituztela egiteagatik egiten, ongi pentsatuta eta hausnartuta baizik. Esate baterako, Nafarroako haur kantari txapelketako antolatzaileak zein parte-hartzaileen irakasleak hausnarketa batean murgildurik daude, txapelketaren planteamendua egokia den ala ez eztabaidatzeko. Aurtengo edizioko kanporaketak aprobetxatuko dituzte horri buruzko iritziak trukatzeko. Nafarroako haur kantari txapelketa dagoeneko bukatzean dago, eta Gipuzkoakoa hasi berria da. Hona hemen egutegia.

Haur kantari txapelketen egutegia

Nafarroakoa

Finala

Apirilak 4, 11:00etan

Iruñeko Gaiarre antzokian

Gipuzkoakoa

Kanporaketak

Apirilak 24, 17:00etan

Oiartzungo Elorsoro kiroldegian

Maiatzak 8, 17:00etan

Zizurkilgo Intxaurre pilotalekuan

Maiatzak 15, 17:00etan

Urdietako Salestarren aretoan

Finala

Maiatzak 22, 17:00etan

Arrasateko Amaia Udal Antzokian

G

Haur kantari txapelketak

Lehiarik gabeko asmo onak

Euskal Herrian euskaraz abesteko dagoen ohitura aberatsa mantentzeko eta bultzatzeko hainbat erakunde dabil lanean; kantuzale elkarteak, hain zuzen ere. Herrialde bakoitzean bana dago: Araban, Bizkaian, Gipuzkoan, Iparraldean eta Nafarroan, eta denek batera Euskal Herriko Kantuzale Elkartea osatzen dute. Edonola ere, nahiz eta elkarrekin Euskal Herriko haur kantari txapelketa antolatu, bakoitzak bere funtzionamendua eta ibilbidea ditu. Horrela, Nafarroako Kantuzale Elkartek urtero antolatzen ditu haur eta heldu kantari txapelketak; Gipuzkoako Kantuzale Elkartek bi urtetik behin, eta besteek maiztasun gutxiagoz.

Txapelketa horien helburua haurrak abestera animatzea eta jendaurrean kantatzeko aukera eskaintzea da, betiere garrantzitsuena parte-hartzea delarik. Halaxe dio Itziar Irigoien Nafarroako Kantuzale Elkarteko lehendakariak. *“Helburu nagusia kantatzea da. Euskal Herriko etxeetan eta bazkari-afalosteetan kantatzeko ohitura handia izan da, baina galtzen ari da. Txapelketaren xede nagusia haurrek gure ohitura izan den kantatze hori berreskuratzea da. Helburua ez da lehiatzea, baizik eta haurrei kantatzeko aukera eskaintzea. Badakigu jendea kantuan jarri nahi badugu, eskola ez dela lekurik aproposena. Txapelketak, ordea, beste giro bat sortzen du: kantuak entzun eta aukeratu behar dira, entseguak egin behar dira...”*

Xedea ez da lehiatzea, hori garbi dio Itziarrek, baina txapelketak berak lehia berekin dakar. Eta hor dago koska. Batzuk lehiatzerako joaten dira, eta beste batzuk ongi pasatzera eta gozatzera. Haatik, zaila da lehia eta ez lehiaren arteko muga non dagoen jakitea.

Errealitate horren jakitun, bai elkarteko kideak eta bai haurrak prestatzen

aritzen diren irakasleak hausnarketa batean murgildurik daude. Oskar Estanga Nafarroako Kantuzale Elkarteko idazkariak txapelketak alde baikorrak eta ezkorrak biak dituela dio: *“Prestakuntza, saiakera, finalaren eguna kantuzalearen egun handia izaten da... horiek alderdi positiboak dira. Bestalde, haur batek ongi kantatu arren galdu duenaren sentsazioa eduki dezake, eta horrelako gauzak zaindu egin behar dira”*.

Bizipen horiek ekiditeko modua ikuspegia aldatzea dela baieztatu du Itziarrek: *“Lehiatzeari garrantzia eman beharrean, ongi pasatzeari eta gozatzeari eman behar zaio pisua”*.

Izena aldatzea zer?

Orduan, zergatik ez aldatu izena? Zergatik ez egin jaialdi bat txapelketaren orde? Hori ere aztertzen ari dira. Oskari garrantzitsua iruditzen zaio izena aldatzea. *“Azken finean, lehiatzeko prestatzen ez diren haurrek pasatzen dute ongien. Orduan, zertarako egin txapelketa bat ez-txapelketarako prestatu behar baditugu haurrak?”*. Dena dela, izena aldatzea ez da dirudien bezain erraza, eta horren jakitun da Oskar. *“Txapelketa bezala antolatuko ez balitz jendeak parte hartuko al luke? Motibazioa berdina izango al litzateke?”* Horiek dira dauden zalantzak.

Itziarrek zalantzak ditu izena aldatzeari dagokionez. *“Jaialdiak egiten dira: Gabonetan, inauterietan... Baina hori nahikoa al da? Nik uste dut oso ongi daudela, baina batzuetan eskolatik kanpo jende gehiagorekin elkartzea komenigarria da harremanetarako, besteak egiten dutena ikusteko... Orduan, txapelketak hedatzeko balio du, eskola barruan ez gelditzeko. Euskararekin gauza bera gertatzen da. Jende aunitzek eskolan ikasi du eta euskara*

eskolako gauza bat da. Euskara eta beste gauza asko eskolara mugatzen ari dira, eta nik uste dut hori baino gehiago direla. Zentzu horretan, txapelketak horretarako balio du, eskolatik atera eta mundu errealerara igarotzeko: beste haurrak, beste eskolak, lagun berriak... Bizi hori agertzeko aukera polita da”.

Horrez gain, lehiaren parte hartzen ez dutenei ere kantatzerako aukerareki lekietxe: herrikoei, eskualdekoei...

Gazteak kantari eskaintza

Kantuzale elkarte batzuen egiteko a ez da txapelketa antolatzerako mugatzen, gehiago ere egiten dituzte, eta baita zerbitzuak eskaini ere. Nafarroako Kantuzale Elkartek, esate baterako, “Gazteak kantari” izeneko zerbitzu bat dauka. Bertsolariekin egiten den modura, norbaitek kantariak edo musikariak behar edo nahi baldin baditu jaialdi baterako, afaloste baterako edo dena delakorako, zerbitzu horretara dei dezake kantari eske. Eskolek ere gauza bera egin dezakete; ipuin kontalari bati deitzen dioten bezala, Nafarroako Kantuzale Elkartera dei dezakete abeslari bat nahi baldin badute. Eskaintza berritzailea da, eta aukera polita izan liteke bai kantariarentzat eta baita kantariak nahi dituztenentzat ere.



Txapelketa baino zerbait gehiago

Esperientziak

Txapelketak ematen dituen aukerak izan ditu aipagai Itziar Trigoienek. Elkarteko lehendakaria izateaz gain, musika irakaslea da eta urte asko daramatza txapelketarako haurrak prestatzen. Euskal Kantuaren pedagogia izeneko ikastaroan ere azaldu ditu bere planteamendua eta esperientzia, gaimontzeko irakasleak animatze aldera. Txapelketaren aurretiko lana, egunean bertakoa eta ondorengoa bereizten ditu.

Zer lantzen duzue txapelketaren aurretik?

Hasteko, denei ematen diet txapelketari buruzko informazioa eta denak animatzen ditut. Ez dut aukeraketarik egiten; animatzen dena animatzen da eta kito. Epe bat ematen diet pentsatzeko eta kantua aukeratzeko. Laguntza behar badute, ematen diet, baina kantua beraiek aukeratzeko dute.

Ondoren, garrantzitsua da konpromisoa hartzea, data batzuk daudelako eta errespetatu egin behar direlako. Gauzak ongi pasatzeko egin behar dira, baina seriotasun puntu batekin. Musika eskolakoekin ere hitz egin behar izaten da, eta hori ere beraien esku uzten dut. Nire zeregina laguntzea da; erantzukizuna eta protagonismoa beraienak dira. Askatasuna eta konfiantza dira bideak.



Izugarrizko garrantzia ematen diot gozatzeari, bainik eta bai beraiek.

Uste dut oso garrantzitsua dela hasieratik garbi uztea garrantzitsuena esperientzia bera, mikrofono batekin jendaurrean kantatzea eta gozatzeko, eta ez lehiatzea.

Nola bizitzen dute txapelketa eguna?

Gauza anitz ikasten dituzte. Jendaurrean abesteak norberarenganako konfiantza handitzen du. Eszenatoki gainera igo eta jendaurrean kantatzeko gai izateak beste konfiantza bat ematen du. Urduri egon arren aurrera egiteko gai izateak izugarrizko ziurtasuna ematen du.

Horrez gain, beste neska-mutilekin kantatzen dutena entzuteak errespetua eta interesa lantzeko aukera ematen du. Gainera, besteek egiten dutena egiteko gai garela konturatzeak ere autoestimua igotzen du.

Beste parte-hartzaileekin ere harremanak sor daitezke, lagun berriak egiteko aukera ematen du.

Eta noski, ikastetxean eta herrian sekulako giroa sortzen da.

Ondoren, eskolara itzultzean, zer jarraipen ematen diozue?

Gustura bueltatzen dira. Jendea interesez eta espektatibekin egoten da beraien zain, eta horrekin jada pozik sentitzen dira. Txapelketa ikustera joaterik izan ez dutenek, entzun egin nahi izaten dute, eta haientzat abesten dute. Kantu giro polita sortzen da.

Aldiz, helburua lehia izan bada, guztiz kontrakoa gertatzen da. Eskolara harrotuta itzultzen dira. "Hoberenak gara, besteak txarragoak ziren..." eta horrelakoak esaten dituzte. Hori gertatzen bada, hausten saiatzen naiz.

Operación Triunfo eta telebistako horrelako saioen eragina nabaritzen al da?

Bai, dudarik gabe, eta eragiten du. Alde batetik, izar bat sortzen du eta besteekin ahaztu egiten da. Eta bestetik, parte-hartzaileei ez die askatasunez jokatzen uzten. "Hau ezin duzu egin, hau horrela da, hori hala... Horrela egiten ez baduzu gaizki dago...". Ez dute jende askea nahi, bideratua baizik. Baina beraiek ez dira konturatzen. Nerabezarroan, erraten diezunaren kontrakoa egiten dute, baina telebistak oso ongi egiten ditu gauzak eta ez dira kontura-

Operación Triunfo eta horrelakoetan parte-hartzailei ez diete askatasunez jokatzeko uzten.

tzen. Orduan, erakutsi egin behar zaie ez direla ari beraiek aukeratzen, beste batzuek aukeratzen dutela, beraiek uste ez badute ere. Nork aukeratzen ditu kantuak? Nork moldatzen ditu kantuak? Nork egiten du dantza? Beraiei ez diete ezer onartzen; dena da horrela, horrela eta horrela. Edo hau egiten duzu edo kalera zoaz. Eta zerbait lortzeko sufritu egin behar da. Non dago beraien askatasuna?

Eskolan guztiz kontrakoa egin nahi dugu; norberak aukeratzen eta egiten duena ongi dago, betiere inor zapaltzen ez bada eta errespetua galtzen ez bada. Zaila da horri buelta ematea, baina saiatzeko ari gara. Ezin dugu telebistaren kontra jarri, baina gauzak nola ikusi erakutsi behar diegu. "Gustatzen al zaizu?. Ongi da, zer gustatzen zaizu? Gustatzen al zaizu norbaitek esatea egunero zer egin behar duzun? Bada, hori ari diren egiten".

Zaila da, ez baitira konturatzen. Baina sarritan helduok ere ez. Operación Triunfo ikusi eta behintzat kantatu egiten dutela pentsatzen dugu eta hori dela garrantzitsua. Ni ez dago ados horrekin. Kantatzea garrantzitsua da, baina ez edozein modutan eta edozer gauza. Nik oso garbi daukat Pello Joxepe ez nukeela abestuko edozein adinetako hurrekin, duen hitzagatik.

Nolako da musikaren egoera eskolan gaur egun?

Nafarroan txarra. Lehen normalean astean bi saio izaten genituen talde ba-

koitzarekin, eta orain 50 minutuko saio bat baino ez. Helburu politikak ditugu diseinatuta, baina betetzen ezinezkoak, ez baitago ezertarako astirik.

Eskoletan egiten den lanarekin euskal kantagintzaren transmisioa berma al liteke?

Ez dakit, bada. Izan ere, arazoa da kantuaren afera musika irakaslearen eskuetan soilik geratu dela. Tutoreek ez dute lantzen, hizkuntza irakasleek ere ez, eta testu liburuetan jada ez dira agertzen. Gainera, Nafarroan liburuak kontrolatuta daudenez... Poliki-poliki hankak moztea da batzuen helburua.

Dena dela, egia da kantuak pila bat laguntzen duela hizkuntza bat ikasten. Ingelesekoek zer egiten dute? Eta guk? Kantua tresnarik hoberena da hizkuntza, kultura... transmititzeko.

Musika eskoletan lantzen al da hori?

Guk ikastetxean aukera eta denbora gutxi dugunez, musika eskolek hasi beharko lukete lekukoa hartzen. Guk dakigula gutxi lantzen da eta betiere norberaren eskuetan dagoela uste dut. Euskaltzalea baldin bazara eta euskal kantuak ezagutzen badituzu, bai; bestela ez. Dena dela, gauzak aldatzen ari dira eta musika eskoletako irakasleek Euskal Kantuzale Elkartera deitu izan dute euskarazko ikastaroak eskatuz.



Bego a Rudi

Berako Labiaga ikastolak urte askotan parte hartu du txapelketan, baina aurten atseden hartu du. Bego a Rudi musika irakaslea da haurrak prestatzen aritu izan dena.

Orain arte parte hartu duzue eta aurten ez. Zer dela-eta?

Hasieratik hartu dugu parte eta urtero Lehen Hezkuntzako talde bat, DBHko beste talde bat, bakarlari bat eta bikote bat joaten ginen. Horrek lan pila bat sortzen du. Gainera, musikariak normalean ikasle ohiak izaten dira eta zaila izaten da entseguak egitea. Lan

handia da,



nahiz eta gus-tura egin. Eta horregatik, aurten atseden hartzea erabaki genuen.

Bada bertze arrazoi bat ere. Kantu txapelketaren hasierako filosofia pixka bat aldatu egin da. Hasieran Euskal Herriko kantu zaharrak berreskuratzea zen helburua eta hagitz ongi iruditzen zitzagun. Ni hemen Berako kantu zaharrak berreskuratzen jarduten nintzen, eta hagitz lan polita zen. Ikasleentzat, ordea, aspergarria zen, eta beste lekue-takoek kanta modernoak kantatzen ziztuztela ikusita, beraiek ere hala nahi zuten. Niri gustatuko litzaidake kantu zaharrak lantzea, baina badaikit zaila dela.

Zer gauza positibo ikusten dizkiozu txapelketan parte hartzeari?

Nik beti erraten diet ikasleei musika ez dela instrumentu bat jotzea soilik. Musika elkarrekin partekatze da, eta horretarako bitarteko bat da txapelketa. Gelan lantzen eta ikasten duguna gero publikoaren aitzinean emateko aukera irekitzen du, guk barruan darabaguna transmititzeko.

Denetik ezagutu eta probatu behar da, eta hori eszenatoki baten gainean egiten da. Kanta bera etxean edo gelan kantatzea ez da gauza bera. Jakin egin behar da eszenatoki baten gainean egoten: argiak, publikoa, epaimahaia... Hori dena esperientzia bat da eta gure burua kontrolatzen laguntzen du. Positiboa da, bai. Nik ez dut erraten ez garenik joango berriz. Agian heldu den urtean berriz parte hartuko dugu, baina lasaiago.

Gainera, txapelketaren beste gauza positibo bat lortu dugun motibazioa izan da.

G

GAIA
Kanturako
zaletasuna

Kristina Solano: *“Txapelketaren aldekoa naiz. Beste motibazio bat sortzen du eta hori ona da”*



Kristina Solano

Trikitilaria eta kantaria

Haur kantari txapelketari begira jarzen naizenean, ikuspegi batetik baino gehiagotatik begiratzen diot. Txapelketak bere alde onak eta txarrak dauka, eta nik, egia esan, onak gehiago ikusten dizkiot, bai parte-hartzaile bezala, bai irakasle bezala eta bai epaimahaikide bezala.

Parte-hartzaile bezala orain dela 6-7 urte hartu genuen parte beste neska batek eta biok Etzakit taldekoekin batera. Oso esperientzia polita izan zen. Beste sarien artean, publikoaren sari bat izaten da, eta guk hura hartu genuen. Ikaragarri gustura gelditu ginen.

Ez zen taulatu gainera igotzen nintzen lehen aldian. Trikitixa jotzen dudanez, ordurako eszenatoki gainean ibiltzen ohituta nengoen. Baina desberdina da erromeria bat ematea edo epaimahai batek zure lana epaitu behar

duela jakitea. Nerbio puntua hor egoten da. Nahiz eta ohituta egon, oso urduri atera nintzela gogoratzen dut. Baina behin taula gainera igo ondoren, ordea, erabat aldatzen da. Nerbioak desargertu egiten dira eta zure lana bukatu arren, hor gelditu nahi izaten duzu. Taldekideak ere ezagunak ginen eta oso giro polita eduki genuen. Prestaketa lanetan gure kontutik aritu ginen. Guk aukeratu genituen abestu behar genituen kantak: bata Zaldiboboren Lurra eta bestea Etzakit taldeak sortua.

Irakasle ikuspuntutik begiraturata ere, ongi ikusten dut. Trikitixa irakasle naizenez, ikasleak trikitixa txapelketarako prestatzen ditut normalean, baina kantu txapelketarako ere bai. Duela bi urte ikasle batzuei komentatu nien eta desiatzen joan ziren. Oso ondo joan zitzaien eta beraien artean hain giro ona sortu zen, non geroztik abesteko elkartzen jarraitzen dugun. Aurten ere komentatu nien, eta desiatzen daude. Beraiantzat oso esperientzia ona izan zen, eta nik uste dut gogoan edukiko dutela beti.

Nire ondo joan zait, hori egia da, baina haur askori ez zaio hori gertatzen. Gertatu izan zait ikasle batzuk txapelketara joatea, eta urduritasunagatik edo mila arrazoigatik, beren lana egin gabe jaitsi behar izatea. Horrelakoetan haur horrek erabakia hartzen du hurrengo txapelketan parte hartu edo ez. Beharbada bere bidea ez du alde hortatik ikusiko, baina hor konprobatzen du.

Hortaz aparte, konturatzen naiz

haurrek, bai txapelketarako edo bai jaialdirako denean, gehiago ikasten dutela eta gehiago prestatzen direla. Triste da hortara jotzea gehiago jotzeko, baina prestakuntza aldetik nabaritzen zaie gehiago aritzen dela.

Txapelketarako ematen dieran aholkua da lasai joateko, prestatu duten lana ondo egitera eta beraiek gustura gelditzera, besterik ez. Badakit zaila dela, badakit behetik esatea erraza dela, baina animoak ez daitezela falta.

Pertsonalki ere, uste dut hazi egiten zarela. Ni txikitan oso lotsatia nintzen, eta taula gainera igotzeak irekitzen lagundu zidan. Horrez gain, lagun pila bat egin ditut.

Epaimahaikide bezala, orain dela bi urte ere egon nintzen lehen aldiz, eta aurtengoa bigarrena izango da. Oso zaila izaten da, polita, baina oso lan zaila. Gehienbat ahotsa eta afinazioa baloratzen dira.

Lehen esan dudanez bezala, alde positibo gehiago ikusten dizkiot txapelketari negatiboak baino. Egokia iruditzen zait eta horren aldekoa naiz. Hor bultzatzen diozu haurrari kantatzera. Beste motibazio bat sortzen du eta hori ona iruditzen zait. Jaialdiek ere sortzen dute motibazio hori, baina txapelketetan beti merezimendu bat daukazu, sari bat. Haurrari kopa bat, txapel bat edo dirua ematea oraindik ere motibagarriagoa da. Hori da alde jaialditik txapelketara. Jaialdietara ere oso gustura joaten dira, baina merezimendu edo sari bat daukazunean, are eta gusturago.

Telebistan kantari

Betizu saioaren musika txokoa

ETBleko haur programaren barruan betidanik egon da abestiei eskainitako tarte bat: hasieran *Euskaraokea* zen, gero *Betimu*, ondoren *Betizu Taldea* eta orain *Show BT*. Oro har, programaren helburua haurrek telebista euskaraz ikus dezaten baldin bada, atal honekin musikaren esparruan ere euskararen presentzia eta erabilera bultzatzea dira xede. Baina, urteetan zehar formulak edo bitartekoak aldatuz joan dira.

Euskaraokea plazarik plaza egiten zen programaz zen. Euskal Herriko makinan bat herritara iritsi ziren ETBko kamerak, eta haur askok izan zuten mikrofonoa hartu eta kantatzeko aukera. “*Udalekin eta ikastetxeekin jartzen ginen hurremanetan*” gogoratzen du Lorea Perez de Albeniz *Show BT*ko zuzendari ordeak. “*Eskoletan guk emandako kantuen zerrenda banatzen zuten eta nahi zuten guztiak abeszezaketen. Lehiaketa baten bitartez horietatik 40 aukeratzen genituen telebistan ateratzeko*”. *Betimuren* planteamendua ere berdina zen, baina kantatzeari dantza egitea gehitu zitzaion, telebistak irudiak ikusteko ematen duen aukeraz baliatuz.

Behin Euskal Herriko plaza gehienak igarota, eta “formula hori erreta” zegoela ikusita, lan horri amaiera emateko unea iritsi zen, eta beste planteamendu batekin hasi zen *Betizu Taldea*. “*Ordura arte gauza zabala baldin bazen, herriz herrikoa, Betizu Taldea telebista platoaren barruko lehiaketa zen, telebista programa bat, azken finean. Casting bat egin zen Betimun ondoen moldatu ziren haurrekin eta lehiaketa bat antolatu zen. Haurrak sartu eta atera ibili ziren, eta azkenean lau gelditu ziren. Talde horrek BT.0 izeneko diskoa kaleratu zuen eta izugarrizko arrakasta izan zuen*” azaltzen digu Loreak.

Parte-hartzaile kopurua murriztu egin zen, eta horren inguruan hausnartu zuten programaren arduradunek, baina azkenean aurrera egitea erabaki zuten. “*Azken finean, ez da guk sortu dugun zerbait, bizitzan eta ikasketetan ere horrela da*” baieztatu du Loreak. Hala ere, lehiaketatik kanpo gelditzen direnak ere egindako lanarekin gustura gelditzen direla aitortzen du, eta pena hartu arren, onartzen dutela.

Ikasturte honen hasieran, berriz, beste ideia berri bati ekin diote: euskarazko musikal bat egitea. “*Musikalak oso modan daude Madrilan, Amerikako Estatu Batuetan eta abar, eta guk euskaraz egitea erabaki genuen*” dio Loreak. 12 gaztez osatutako talde bat aukeratu ondoren, gazteen gertuko gai bat hautatu zuten: elkartzeko alokatzen dituzten lokalak. Horren inguruko istorio batekin musikala prestatu eta iazko abenduan estreinatu zuten telebistan, eta ondoren Sopelan antzeztu. Musika eta dantza ardatz harturik, euskarazko abestiak eta erritmo moderno-

ak zituen osagaitzat. Loreak dioen bezala, “*erritmo horiek ere euskaraz egin daitezkeela ikusteko*”. Egindako lana disko batean bildu eta kaleratu zuten. Telebistako lanari dagokionez, egunero ikuskizun bat egiten dute binaka edo hironaka. Udari begira, *Show BT*ren disko berri bat kaleratuko dute.

Euskara da ardatz

Telebistako programa honetan kantagai diren abestiak euskarazkoak dira. Euskal taldeen kanta bere horretan abesten dituzte, bertsiotzekin egin gabe. Atzerriko hizkuntzetan daudenak, aldiz, euskaratu egiten dituzte, eta zenbait hitza aldatzen diete, jatorrizkoa ez dutelako egokitzat jotzen haurrentzat. Itzulpen horiekin, atzerriko abestiak euskaraz abestea lortzen dute, edo hori da, bederen, helburua. “*Haurren musika erreferente nagusiak kantopotik datoz, eta guk erakusten duguna da abesti hori euskaraz abestu ahal direla eta badaukagula gaitasuna kantu horiek eta erritmo desberdinak euska-*





raz abesteko”.

Haurren musika erreferentzia nagusiak kanpokoak direla aipatu du Loreak eta horren inguruko xehetasun gehiago eskatu dizkiogu. *“10 urtera arte, eurentzat musika ezaguna da etxean entzuten dutena edo, nahitaez, estatu espainiarretik, AEBtik edo mundu anglosaxoietik datorrena: top zerrendetan dagoena, telebistan eta aldizkarietan ikusten dutena... Izugarria da. 10 urtetik aurrera hasten dira euskal taldeak ezagutzen”.* Horren haritik, nahiz eta programako arduradunen helburua euskarazko abestiak bultzatzea den, kanpoko komunikabideen, aldizkarien eta gainontzeko eragileen itzala askoz ere handiagoa da. *“Nahiko nuke guk eragina edukitzea eta La Oreja de Van Gogh-en hitzak euskaraz jakitea haurrek!”* dio Loreak. Edonola ere, kontuan izanik 4-12 urteko haur eta gaztetxoek %60-70ek ikusten duela Betizu programa, ez da kopuru makala.

Abesteko ohitura badago

Euskal Herrian bazkalosteko edo afalosteko kantaldi beroak gutxitzen ari direla entzuten da, ohitura hori gal-



tzen ari dela, alegia. Gutxi abesten dela esan izan ohi da, eta agian egia izanen da, baina haurrek eta gaztetxoek abesten dute. Akaso ez euskal abesti tradizionalak; seguraski beraien gustuko kanta modernoak, baina kantatzen dute, eta gustuko dute, gainera.

Horregatik, telebistara joaten diren batzuk horretara joaten dira; abestera eta kito. Saltsero hutsak dira eta ongi



pasatzera eta esperientzia berri bat bizi-tzera joaten dira. Kantatzea gustatzen zaienez, eta horretarako aukera ematen zaienez, horretan jarraitzen dute ahal duten bitartean. Beste batzuk aurretik ere musika munduan jardundakoak izaten dira eta bide horretatik jarraitu nahi dutenak. Abeslari izatea eta ospetsu bihurtzea amesten duenik ere bada.

GAIIA
Kanturako
zaletasuna

G

jesus garmendia

Mondragon Unibertsitateko
HUHEZI Fakultateko irakaslea eta
Mendeberri proiektuaren
koordinatzailea



Arazoetan Oinarritutako
Irakaskuntza iraultza bat da, ez
dauka zerikusirik irakaskuntza
tradizionalarekin



Ikaslea da ardatz eta bere jakintza eraikitzea da xedea. Ikasleak berak eraikitzen, bilatzen, kudeatzen du informazioa beste ikaskideekin batera eta diziplinarteko ikuspegitik.

Eskoriatzako Irakasle Eskolak eman zion hizkuntzen mundutik hezkuntzara jauzi egiteko aukera Jesus Garmendiari, eta han jarraitzen du oraindik. Ez dira alferrik igaro han da-ramatzen urte guztiak, eta ezta zuzendari lane-tan pasa dituen 20 urteak ere. Eskolaren hastapene-ko urratsak ezagutu zituen, eta memento hone-tan pedagogia arloko proiektu berritzaile bate-an murgilduta dabil, inguru-ko lankideekin batera.

Mendeberri izenez ba-taiatu dute proiektu be-rria. Egungo gizarte alda-ketetara moldatu nahi du, orain arteko eskemak hausten ditu, iraultzailea da, ikaslea da ardatz, ira-kaslearen zeregina aldatu egiten da, ez dago ohiko eskola magistralik. Hori dena eta gehiago zehaztu digu proiektua ezartzeko ardura daukan Jesus Gar-mendiak.

Egungo gizartearen aldaketak ikusita, eta irakaskuntzak ere aldatu beharra duela ohartuta, Mendeberri proiektua jarri duzue martxan MUko HUHEZI Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Zer da proiektu hori?

Unibertsitatean daukagun proiektu makro bat da eta hezkuntza-aren eraldaketa nahi du. Azken urte-otan aldaketa sakonak ari dira gertatzen gizartearen eta hezkuntza-aren egiteko nagusia pertsonak heztea eta etorkizuneko gizarte berrian erabateko eragina izango duten balioak eta pentsamoldeak eratzea da. Lan horretan unibertsitateak bere egitekoa beteko badu, aldaketa sakonak burutu behar ditu, bai edukietan eta bai didaktikan. Horretarako, premisa berrietan oinarritu beharko du, eta beharrezko egitura aldaketak egin bere baitan. Bada, Mendeberri hezkuntza proiektuak hori guztia bideratzeko aukera ematen du. Gizarteak dituen eskaerak eta beharrak asetzeko aukera ematen du. Eta horretarako, elkarren artean osagarriak diren hiru esparrutan oinarritzen da: konpetentziak, balioak eta eleaniztasuna.

Egoera berrira egokitzeko, zein konpetentzia landu behar dira unibertsitatean?

Alde batetik, titulazio edo ikasketak bakoitzari dagozkion konpetentzia espezifikokoak daude; eta bestetik, ikasketak guztietan lantzen diren zeharkako konpetentziak. Azken horien artean guk zazpi izendatu ditugu: talde lana, komunikazio eraginkorra, arazoaren ebazpena, lidergoa, erabakia hartzea, ikuspegi globala eta ikasten ikastea. Gure ikasleak hemendik ateratzen direnean konpetentzia horien jabe izan daitezten nahi dugu.

Noski, horretarako, hots, konpetentzia horiek landu ahal izateko, curriculum diseinuak, metodologia eta bitarteko didaktiko berriak diseinatu eta martxan jarri ditugu.

Balioak lantzea da proiektuaren beste oinarrietako bat. Zein balio?

Mendeberri proiektuak oinarri kooperatiboa du eta balioak hiru arlotan garatzea du xede: edukietan, metodologian eta unibertsitateko bizitzan.

Dena dela, ez da erraza zein balio landu eta nola landu erabakitzea. Izan ere, alde batetik, balioak ulertzeko modu tradizionala daukagu, oinarri erlijioso duena; eta bestetik, unibertsitate mailako balioaren kontzeptua. Bigarren hori askoz ere neutroagoa eta aseptikagoa da. Bijoera horien artean halako gaizki ulertzeak egoten dira. Gizartean dauden balioak, oinarri erlijiosoak dutenak, eremu akademikorik eta formazio tekniko-aseptikok batera pasa behar direnean, ez dakizu non zauden, zaila egiten da biak uztartzea. Orain dela hiru urte lan horretan hasi zen hemengo talde bat, baina ez zuen aurrera egin. Une honetan beste talde bat dabil horretan.

Hirugarren zutabea eleaniztasuna da.

Bai. Globalizazioaren eraginez, kompetentzia linguistikoen garrantzia hazi egin da. Horregatik, gure oinarritzko hizkuntza euskara izateari utzi gabe, gaztelania eta ingelesa ere lantzen ditugu.

Orain arteko guztia osatzeko, aipagarria da informazio eta komunikazio teknologien arloan egiten dugun ahalegina. Duten garrantziaz ohartuta, unibertsitateko egunoroko jardunean beren erabilera bultzatzen dugu: ikaskideen arteko komunikazioan, ikaste prozesuan, baliabide bezala...

Kompetentziak, balioak, eleaniztasuna eta teknologia berriak lantzeko proiektua. Horrela ikusita ez dirudi gauza berria denik. Non dago berritasuna?

Metodologian. Iraultza bat da,



ez dauka zerikusirik irakaskuntza tradizionalarekin. Beste mundu bat da.

Ikaskuntza-irakaskuntza prozesua garatzeko metodologia erabat berria da. Hiru modalitate ditu: arazoetan oinarritutako irakaskuntza, kasuetan oinarritutako irakaskuntza eta proiektuetan oinarritutako irakaskuntza. Hirurak desberdinak dira, baina ezaugarri komun bat dute: ikaslea da ardatz eta bere jakintza eraikitzea da xedea. Irakaslearen papera aholkulariarena bezala ulertzen da. Ikasleak berak eraikitzen, bilatzen, kudeatzen du informazioa beste ikaskideekin batera eta diziplinarteko ikuspegitik.

Edonola ere, nahiz eta elkarren arteko antzekotasunak desberdintasunak baino gehiago izan, badiutuzte diferentziak. Arazoetan oinarritutako irakaskuntza (AOI-PBL) asmatutako arazoetan oinarritzen da, balizko planteamendu batean. Kasuetan oinarritutako irakaskuntza (KOI), aldiz, egoera erreal bateatik abiatzen da. Hirugarrena, proiektuetan oinarritutako irakaskuntza (POI), 3. mailan lantzen da eta ikasturte osoan egin beharreko lan bat da.

Hirurak lantzen hasita al zaudete? Zein fasetan dago ezarpena?

Orain dela 4 urte hasi ginen Mendeberriren ikerketa teorikoekin. 2002-03 ikasturtean eleaniztasunaren planteamenduekin hasi ginen; ingelesa indartu eta gaztelania ofizializatu genituen, gure ikasleak hiru hizkuntzatan trebatuta ateratzeko asmoz.

Aurten, 2003-04 ikasturteko 1. hiru hilabetean, AOI aplikatzen hasi gara espezialitate guztietako 1. mailan. 2. hiru hilabetetik aurrera Haur Hezkuntzako espezialitatean soilik jarraituko dugu. Helburua da Haur Hezkuntzako espezialitatean jartzea bere osotasunean, eta gaitortzekoetan ikasgai komunetan soilik.

Azal iezaguzu zer eta nola egiten duzuen AOIn.

Hasteko, ikasturteak moduluka antolatuta daude eta modulu bakoitzaren iraupena zazpi astekoa da. Modulu bakoitzaren baitan zenbait arazo planteatzen dira, eta horixe da ikasketa prozesuaren abiapuntua: arazoa. Hori nola landuko den eta zein ikaste helburu di-

Izugarrizko
aldaketa da
irakasleentzat.
Orain ikasleak dira
protagonista.
Irakasleak bere
nagusitasuna edo
jainkotasuna galdu
egiten du. Beti
dago metodo
tradizionalean ez
dagoen ziurtasun
falta bat.
Eztabaida
nagusiena da
zenbateraino parte
hartu behar dugun
irakasleak

tuen zehaztuta dago. Modulua eta curriculuma espezialitate desberdinetako irakasleek prestatzen dute, hots, diziplinarteko izaera izaten du.

Ikasleak taldeka biltzen dira astean birritan, eta saio bakoitzak bi orduko iraupena du. Asteko lehen saioan aurretik etxean irakurri duten arazoa lantzen hasten dira. Irakaslea atzealdean eserita gelditzen da eta ikasle batek hartzen du dinamizatzaile papera. Berak ematen die hitza gainontzekoei, eta haren lana garrantzitsua da, bera baita prozesua bideratzen duena. Beste batek idazkari lanak egiten ditu, agertzen diren ideia eta iritzi guztiak arbelean idatziz. Horrela, lehen saio horretan, ikasleek arazoa irakurri eta lehendik horri buruz dakitena esaten dute. Denen artean puntu ilunak argitzen saiatzen dira eta ateratzen diren ideiak atalka sailkatzen dituzte. Azken urrats hori oso garrantzitsua da ondoren ikaste prozesuaren xedeak finkatzeko. Multzo bakoitzerako helburu bat definitzen dute, eta bilera bukatu baino lehen, ikasle guztiak hurrengo bilerarako informazioa bilatzeko konpromisoa hartzen dute, finkatutako helburuak betetze aldera.

Bi egun igaro ondoren taldea berriro elkartzen da, baina tartean ikasleek lan indibiduala egiten dute, informazioa bilatu behar baitute ezarritako xedei erantzun ahal izateko. Bibliografia ematen zaie irakur dezaten eta bakoitzak landu dezan. Artikulu horietan arazoa agertzen da, noski. Horrela bada, bigarren saioan dinamizatzaileak aurreko saioaren laburpena egiten du gaia zentratzeko. Ondoren, partaide bakoitzari hitza ematen dio aurkitutakoa azal dezan. Denen artean eztabaidatu eta informazioa osatu ostean, arazoari irtenbidea ematen diote eta hor esaten den guztiarekin osatzen dute gai horri buruz dakitena. Saioa bukatu baino

lehen, hurrengo astean langai izango den beste arazo bat banatzen zaie.

Bi saioen artean hitzaldi edo eskola tradizional bat jasotzen dute talde guztiak elkarrekin. Horren helburuak hiru dira: informazioa osatzea, zailak diren kontzeptuak eta alderdiak ulertaraztea eta ikasleei adituarekin egoteko aukera ematea.

Horrekin guztiarekin batera saio praktikoak egiten dituzte, eta baita tutorearekin jarraipen saioak ere.

Aurten lehen hiruhilekoan bost arazo ikusi ditugu, eta ondoren azterketa egin dute: A, B, C moduko 50 item eta galdera irekiak.

Eskoletara etortzea derrigorrezkoa da. % 80 baino gutxiago etortzen dena ezin da azterketara aurkeztu. Asistentzia hori metodologiaren berezko eskakizuna da, talde lana funtsezkoa delako eta, bestela, indargabetu egiten delako.

Modu horretara lan eginda gaiak bere testuinguruan lantzen dira, arazo zehatzei irtenbidea aurkitzen zaie eta diziplinartekotasuna lehenesten da.

Ikasleentzat zeharo berria izango da ikasteko modu hau. Nola erreakzionatu dute?

Bai, ikasleentzat guztiz berria da. Asko jokoz kanpo uzten ditu, eta beste askorentzat deprimitzekoa da. Denetarik dago. Esate baterako, badugu liluratuta dagoen ikasle helduxeago bat. Beste leku batzuetan ere ibilia da eta hemen aurkitu duen metodologia da aspaldian bilatzen ari zena. Beste zenbait ikasle beste puntan daude. Institutuan oso nota onak ateratzen zituzten, baina gehienbat irakasleek esandakoa errepikatuz azterketak ondo eginez. Eredu berri honetan irakaslerik ez dagoenez, eta horretara ohituta ez daudenez, ez dituzte horren nota onak ateratzen, galduta eta autoestimua jaitsita sen-



ti-
tzen
dira.
Kosta
egiten zaie
jendearen au-

rrean hitz egitea, eta
astero-astero lan egin beha-
rrak tentsio konstante batean jar-
tzen ditu. Beste asko hasieran gal-
duta ibili arren, orain gustua har-
tzen hasiak dira.

Ikasleen artean balorazio bat
egin da eta % 6,69 puntu eman diz-
kiote batez beste. Beraz, ez dago li-
lurarik, ez dago euforiarik, baina
nikuste dut jendeak begi onez ikus-
ten duela, gustua hartu diola, eta az-
ken finean, aurrera doala.

**Irakasleen papera ere erabat
aldatzen da. Zein dira nabaritu
edo bizitu dituzuen aldaketa aipa-
garrienak?**

Bi gauza berri azpimarratuko ni-
tuzke. Lehena, norberarenak ez di-
ren gaiak menperatu behar direla.
Lehen, bakoitzak bere gaia presta-
tu, eman, gelatik irten eta kito, hor
bukatzen zen. Orain, aldiz, taldeka
egiten da lan eta taldean norberare-
nak ez diren beste gaiak ere lantzen
dira. Arazoetan gai bat baino gehia-
go inplikatzeko dira, eta norberak
denetarik jakin behar du. Irakasle-
ek elkarrekin negoziatu behar dute
zer irakatsi eta zer ez. Lehen norbe-

ra
zen
jaun eta
jabe, eta
orain proiektuza-
balago batean beste
irakasleekin hezitzaile gara.

Bigarren berrikuntzarol aldake-
ta da. Lehen irakaslea eta besteak,
irakaslea eta ikasleak ziren; eta
orain ez. Orain irakaslea han dago,
han egon behar du, garrantzitsua
da han egotea, baina beste maila
batean. Orain ikasleak dira prota-
gonista. Irakasleak bere nagusita-
suna edo jainkotasuna galdu egiten
du. Transmisore izatetik hezitzaile
izatera pasatzen da.

Beraz, izugarritzoko aldaketa da-
kar irakasleentzat, eta oso gogorra
da. Lehendabiziko hiruhilabete-
tan bost astean jardun gara, egunero
goiz osoak ikasleekin pasaz. Hori
da gauza berria agian, baina noski,
gauza bat da eskolak prestatuta
edukitzea, hitz-aspertua ematea
eta irtetea; eta beste bat ikasleei
uneoro sortzen zaizkien beharrei
erantzuna ematea, zer esku-hartze
mota eduki erabakitzea, etengabe
norbere buruari galderak egiten
egotea... Beti dago ziurtasun falta,
eta metodo tradizionalen ez.

Dena dela, irakasleak oso pozik
daude. Inork ez du izan proiektu

honetan sartzeko arazorik eta go-
goz gaude. Are gehiago, beste bat-
zuk sartzeko desiratzen daude.

**Rol aldaketa horrek irakaslea-
ri trebezia berriak eskatzen al diz-
kio?**

Ez dakit berriak diren edo ez,
baina hiru trebezia behintzat eduki
behar dituela esango nuke. Bata,
lantzen ari diren gaiaren inguruko
gutxieneko ezagutza. Bigarrena,
ikasleen artean modu errealean in-
plikatzeko gogoia. Eta hirugarrena,
ikasleek ulertzeko moduko hiz-
kuntza erabiltzea.

Zein zalantza sortu zaizkizue?

Zalantza asko teknikoak dira,
batez ere gure esku-hartzeak norai-
no iritsi behar duen. Metodo tradi-
zionalean ere gertatzen da, irakasle
batetik bestera izugarritzoko aldea
egoten da. Bada hemen ere, nahiz
eta jarraibide batzuk egon, badau-
de zalantzak.

Eztabaida nagusia da zenbate-
raino parte hartu behar dugun ira-
kasleok. Guk pentsatzen dugu 1.
mailan esku-hartzeak handiagoa
izan behar duela 3. mailan baino.
Baina horren barruan ere hainbat
joera daude: batzuk beste batzuk
baino interbentzionistagoak dira.

**Zentroarentzat edo unibertsi-
tatearentzat zer aldaketa ekarri
du proiektuaren ezarpenak?**

Memento honetan distortsio txi-
ki bat besterik ez da. Ez dago ikas-
keta guztietan eta dozena bat ira-
kasle gaude buru-belarri sartuta,
besteak ez. Zenbait kasutan, dis-
funtzio sortzaile ere bada, notenka-
suan, adibidez, ez baita betiko sis-
tema edo antolaketa erabiltzen.

Beraz, oraindik nukleo txiki bat
da zentroaren egitura, hor dagoe-
na, bere nortasuna duena eta zen-
troaren baitan onartuta dagoena.
Baina, oro har, zentroak lehen be-
zala funtzionatzen du.

Enpresek beren uretara ekarri nahi dute mundu akademikoa beraiek nahi dituzten tituluak lortzeko. Ikasketak instrumentalizatzeko bide bat da. Inork ez du aitortzen, baina merkatuaren legeak eta gizartearen egitura ekonomiko nagusiak ikasketen eremu hori funtzionaltasunera bultzatzen ari dira



Txikia izateak lagunduko zizuen, ezta?

Bai, noski. Deustuko Unibertsitatean sinposio bat egin zen eta han egon ginen. Beste unibertsitatekoek gauza asko zeuzkaten esateko, baina inork gutxik jarri du martxan, egitura zurrunagoak dituztelako. Handiagoak dira eta gu ez, hemen txikiak gara eta instituzionalki ez zaigu ezer kostatu martxan jartzea. Zailtasunak izan ditugu, baina irakasle bakar batek ere ez digu esanez delasartuko. Pribatuizateak ere badu abantaila, libre garelako.

Ikastetxeetako Hezkuntza Proiektuetan haur autonomoak eta kritikoak nahi ditugula idazten da, baina sarritan paperean gelditzen da. Metodologia berri honekin errazago lor al daiteke helburu hori?

Dударik gabe, baina hori guztia esplizituki landu behar da. Berez, metodologia hau egokiagoa da, baina noski, lantzen baldin bada. Guk zazpi konpetentzia dauzkagu definituta, eta horien inguruko hurbilpenak egiten ari gara. Adibidez, 2. hiru hilekorako "ikasten ikasi" eta "talde lana" hartu ditugu. Lehenengoaren kasuan, hitzaldi bat eman zitzaion apunteak nola hartu behar dituzten irakasteko, eta aurrerago beste hitzaldi bat emango zaie.

Beste modu batera esanda, trebetasunak detektatuta eta definituta edukitzea eta metodologia egokia aukeratzea ez da nahikoa, bitar-

tekorik jartzen ez bada. Metodologiarekin batera bitartekoak jarri behar dira eta hori da gure erronka. Hasi besterik ez gara egin. Lorea pixkanaka-pixkanaka joango da zabaltzen.

Zer balorazio egiten duzu orain artekoaz?

Ikasleengana nola heldu, nola transmititu balioak... hori izan ohi da gure kezka, eta metodo honek horretarako tresnak ematen dizkizu, oso betegarria da. Ba al dakizu zer den gelan 100 ikasle eduki ordez 12 izatea? Dozena horrek tutorearekin lortzen duen konfiantzak eta ezagutzak, eta ikasleek euren artean lortzen duten giroak derri gor izan behar du ona pertsonaren lasaitasunerako eta garapenerako. Sistema bera da elkarren arteko laguntzan eta trukean oinarritutakoa. Espiritu kooperatiboa eta elkartasuna daude metodologiaren muienean. Nik zuk esaten duzulako dakit; beraz, ezer ez baduzu esaten, ez dut jakingo. Norberak ezin du dakiena beretzat gorde, partekatu egin behar da. Eta zenbat eta gehiago partekatu, orduan eta gehiago jakingo dugu. Alde horretatik begiratuta, metodologia huts bat baino askoz gehiago da.

Zuek asmatu al duzue metodologia hau? Zein iturritatik edan duzue?

Gure eredia Holandako Maastricht-eko Unibertsitatekoa da, guk ez dugu ezer asmatu. Han 25 urteko esperientzia daukate eta ingeniari-tzan, medikuntzan eta abar irakasten dute metodologia honekin. Gure bi irakasle han egon ziren eta handik ere etorri ziren hona. Beraiek dira gure iparra eta asko ez urruntzen saiatzen gara. Beste zenbait lekutan ere erabiltzen dute sistema hau, besteak beste, Kanadako McMaster Unibertsitatean, Amerikako Estatu Batuetako New Mexico, Harvard eta Sherbrooke Uni-

bertsitateetan, Danimarkako Unibertsitatean...

Lehen Hezkuntzan Bigarren Hezkuntzarako prestatzen dira ikasleak; DBHn Batxilergorako; eta Batxilergoan Unibertsitaterako. Ondorioz, goiko ikasketa ereduak eragina dute behekoetan. Metodologia berri horrek beheko ikasketetan eraginik izan dezakeela uste al duzu?

Bai, metodologia aurrerakoi guztiek izan dute beren eragina. Noski, hor kontraesan bat dago: hautespen-azterketa. Horrek metodo tradizionalaren arabera funtzionatzea eskatzen du.

Eta hautespen-azterketa aldatzera irits al daiteke ikasketa eredu berri hau?

Aldatu beharko luke, baina hautespen-azterketa urteetan ez da baxterre aldatu. Pedagogia aldatu da, baina hautespen-azterketa ez. Eskola aurreratuenetan ere ikusten da metodo aurreratua izan arren, azkenean hautespen-azterketa egin behar dutela ikasleek, eta memori-zazio hutsean bukatzen dutela. Izugarrizko kontraesana dago. Egitura ofizialak mugigaitzak dira, hor daude. Pedagogia mugitzen da, baina ez dauka hautespen-azterketan eragiteko indarrik. Pedagogia horiek garatzaileagoak dira gizakia-arentzat, baina horrek ez du mugiaraziko hautespen-azterketa, Europako markoan ez bada. Nik uste dut metodologia honek bere bidea egingo duela beheko mailetan eta ikasleek beste autonomia eta garrantzi bat hartzen dutela ikusiko dugula. Baina gero, hautespen-azterketa mugitzen ez bada, pasa egin beharko da.

Europa aipatu duzunez, zer ekarriko du Bolognako akordioak?

Guresaio hauek pedagogia mailakoak dira eta Bolognako egitura

edo antolaketa mailakoa da.

Eta zure ustez, zer aldaketa ekarriko ditu egitura?

Aldaketak eta eskakizunak. Unibertsitatea gero eta homogeneoagoa izango den inpresioa dago. "Kalitate" baremoak jartzen dituzte eta denok horren barruan mugitu behar dugu. Orduan, dena neurtuta egongo da; ez doktore kopurua soilik, baita gela bakoitzeko aulki kopurua ere. Gero eta esku-hartze gehiago ikusten da. Esan nahi dudana da, Europako bateratze hori aitzakiatzat hartuta, gero eta kontrol gehiago ari direla jartzen unibertsitatean. Bateratze hori ikuspuntu zentralista batetik egiten denez, askotan eremu propioa inposatzeko aitzakia izaten da.

Eta baliteke programazioetan ere eskua sartzea. Guretzat mesede gutxi ekarriko du.

Ikasleak merkatuak eskatzen duen horretarako prestatu behar direla esaten da. Horrek ez al du merkaturia jaun eta jabe bihurtzeko arriskurik?

Bai, eta gero eta gehiago. Mundu ekonomikoa, enpresak... gero eta gehiago dira unibertsitatean sartzen direnak beken bidez, laguntzen bidez... gure kasuan MC-Cren bidez. Eta hori ez da doakoa. Enpresek beren uretara ekarri nahi dute mundu akademikoa, beraiek nahi dituzten tituluak lortzeko. Ikasketak instrumentalizatzeko bide bat da. Inork ez du aitortzen, baina merkatuaren legeak eta gizartearen egitura ekonomiko nagusiak ikasketen eremu hori funtzionaltasunera bultzatzen ari dira. Ondorioz, humanitateak, teologia, filosofia... pixkanaka-pixkanaka jaitzen ari dira. Guk gure unibertsitate barruan ere badaukagu borroka bat gure nortasuna mantentzeko. "Zuenak zertarako balio du?" eta horrelakoak entzun behar izaten ditugu behin eta berriz.

Euskal Unibertsitatea eratzea posible ikusten al duzu?

Gogoa bai. Nik uste dut euskal unibertsitatea behar-beharrezkoa dela, hots, euskaraz soilik funtzionatuko duen unibertsitatea. Hori nahitaezkoa da. Gaur egun eredu horretatik urrun gaude. Gehiena fakultate hau hurbilduko litzateke, baina gainontzekoak ez.

Nik uste dut euskal unibertsitatearen alde sortu zen plataformaren eginkizuna presio talde moduan indartzea dela, politikoengan eragina izan dezan. Zeren garbi dago unibertsitate elebidunik ez dagoela. Ez dago. Beti hizkuntza menperatzailea izango da nagusi. Euskal Herriko unibertsitateetan gaztelania da nagusi, fakultate honetan izan ezik, bere komunikazio hizkuntza euskara izango zela erabaki zuelako. Horrela funtzionatuko duen unibertsitate publikoa behar du euskarak. Eta ez dago horrelakorik. Hori defendatu behar dugu, hor doalako euskararen etorkizuna, neurri batean.





Krakoviako haur eskolak ezagutzen



Izaskun MADARIAGA

Hik Hasiko kidea

Polonian, Europako beste herri batzuetan bezala, derrigorrezko hezkuntza 7 urterekin hasten da: 7 urterekin hasi eta 18rekin bukatu. Tradizioz horrela da, nahiz eta gaur egungo joera hezkuntzaren derrigortasuna 6 urtera jaistekoa izan. Polonian bertan, datorren urtean jarriko da indarrean lege berria, eta ondorioz, derrigorrezko hezkuntza 6-18 urte bitartekoa izango dute.

Polonian, ordea, badute hezkuntzatik kanpo dagoen beste sare bat (Osasun Sailaren pean dagoena) haur txikiak eskolatzeko. Komunismo garaian hedatutako sarea dute, ikuspegi sozial batetik langileei (amei, batez ere) laguntza emateko asmoz eratua.

Baina, Polonian aldaketa asko izan dituzte. 1989/90 urtetik aurrera hasi ziren euren ekonomia modua, osasun sistema, gizarte mailako antolaketa, hezkuntza eta abar aldatzen. Eta aldateten barruan, besteak beste, 90eko maiatzean lege berria atera zuten haur txikiak hezten zituzten zentroi hezkuntza izaera handiagoa emateko. Funtsean, ordea, 3-7 urtekoei besterik ez zien eragin erreforma horrek: irakasle tituludunak eskatu zituzten eta hainbat hezkuntza programa ezarri. Horrekin batera, gurasoen parte-hartzeko eta erabakitze aukera gehitu nahi izan zuten, eta sistema dezentralizatu ere bai, eskualdeari eta udalari boterea emanez.

Hezkuntza Departamentu Nazionalak eratzen du curriculum eta Toki Administrazioen esku dago zentro guztien sostengu ekonomikoa eta kudeaketa. Diru iturria egonkorra da. Gurasoen esku dago eskola bakoitzean eman beharreko espezialitateak aukeratzea (demagun dantza, ingelesa, musika, erlijioa... eskola bakoitzak berea

duena), eta espezialitate horiek gurasoek ordaintzen dituzte oso-osorik.

Krakoviako haur eskola publikoak

Krakovian, Poloniako beste hirietan ez bezala, komunismo garaiko zentro guztiak itxi gabe mantendu dira. Udala da horien erantzule. Legez arautua dago 0-7 adin tartea, eta udalaren esku geratzen da eman nahizaion traterera ematea; alegia, hezkuntza traterera ematea edo osasun traterera ematea. Krakovian 0-7 urteko zentro guztiak hezkuntzaren barruan daude, nahiz eta gero ikusiko dugun bezala, desberdintasun ikaragarriak egon batzuetatik besteetara.

Udalak bere aurrekontuko %10 gastatzen du zeregin honetan. Sortzen den auzo bakoitzean zentro berri bat irekitzen du. Gaur egun eskaera guztiei egiten zaie aurre eta, paradoxa badirudi ere, eskaera baino eskaintza handiagoa dago herrian. Horren arrazoia langabezia dago. Egia esan, ez dago haur txiki guztiak eskolara eramateko tradizioz (0-3an, %40 hutsik dago). Oraindik orain, haur txikiek etxean egon behar dutela pentsatzen dute edo, beharra izanez gero, amonaren laguntza bilatzeko joera dute. Hemen gertatzen zaigun bezala, haurrek adinez gora

¹ 0-3an ez dago eskaintza pribaturik eta 3-7an %10 besterik ez.

² 0-3an 1.700 haur daude eskolatuak eta 23 zentrotan eta 3-7an 16.000 haur 124 zentrotan.

egin ahala, gehiagok jotzen dute eskolatzera. Ideia bat egiteko, 6 urtekoen eskolatzeko maila %90ekoa da eta hortik behera gero eta gutxiago².

Hainbat modalitatetako haur eskolak daude Krakovian (unitarioak, adinez desberdinak, Lehen Hezkuntzako ondoan irekiak...) eta finantziario dagokionez, 0-3 urtekoak eta 3-7koak desberdin egiten dira. Lehenengoetan, gurasoen kuota gutxi gora-behera %45koa da. 3-7ko zentroetan, aldiz, bost orduko eskola eskualdeak ordaintzen du; beraz, 5 ordu doan dira eta hortik pasatzen dena gurasoek beren poltsikotik ordaindu behar izaten dute. Haur bakoitzaren egonaldia 11 ordu luza liteke³, baina familiako ahalmen ekonomikoak ere badu eragina egonaldi horretan. Janariaren prezioa gurasoek erabakitzen dute zuzendariarekin batera.

Zentroen egitura zuzendariak pisu handia du. Pertsonal kopuruaren aldetik aberatsak dira. Adibidez, 0-3ko eskola batean 64 haur eta 22 langile (zerbitzuetakoak barne) zituzten.

Nahiz eta ordutegi zabala izan, erratio oso onarekin dituzte haurrak. Talde bakoitzean hiru profesional mota daude: hezitzailea, laguntzailea eta erizaina, eta hirurak batera egoten dira talde bakoitzean. Erratioa, batez beste honakoa da:

- 6-18 hilabete	3
- 18-30 "	5
- 30-42 "	6
- 42tik aurrera	8/9

Integrazioa haurrak 10 urte arte egin litezke haur eskoletan. Zentro espezializatuak badaude eta bertara bideratzen dira diagnostikoa egin eta gero.

Langile asko dira eta horrek haurren arreta pertsonala egokia izatea

ziurtatzen du; azken finean, haur txikien hezkuntza egiteko ezinbestez beharreko lehen baldintza da. Eta Krakoviako haurrak oso giro lasaian eta gozo ikusten ziren.

Baina haratago joanda, irakasleen formazioaren aldetik akats eta hutsune nabariak daudela ere esan behar. Oro har, osasun kutsua mantentzen dute oraindik (haur txikienekin gehiago). Profesionalen artean erizainen bat dago gela guztietan eta ikastetxeetan sendagilearen gelak ikus daitezke, nahiz eta orain, erreforma politikoaren ondorioz, erabili ez. Sendagilea kendu izana atzerapauso modura bizitzen dute osasun sistema txarra duen herrialde honetan.

Dena den, eta berriro errepikatuz, alde handia dago 0-3 eta 3-7ko zentroen artean. Lehenengoek, lehengoan jarraitzen dute, osasun ereduarekin, eta hezkuntzarako saltoa egiten hasi gabe daude oraindik. Aldiz, 3-7ko zentroetan, beste bide bat da ireki dutena, hezkuntza eredurarekin antzekotasun handiagoa duena.

* 0-3ko zentroak:

a. Haurren babesak da helburu. Curriculum espezifikorik ez dago, baina horrek ez du esan nahi irakasleak programarik eduki behar ez duenik. Hala izatea bakoitzaren kontua da. 30 hilabetetik aurrera hasten dira ekintza osagarriak ezartzen arlo zehatzak lantzeko; adibidez, dantza erritmikoa. Kasu horietan espezialista etortzen da astean ordubetez. Ingelesa ikasteko aukera badago, betiere gurasoek ordaintzen badute. Ikasketak hauek eskola orduan izaten dira.

b. Lanaldi osoa (astean 40 ordu) haurrekin egiten dute hezitzaileek. Haurrekin zuzenean egiten duten lanetik kanpo ez daukate beste inongo ar-

durarik edo erantzukizunik.

c. Zuzendariaren ardurapean dago dena. Ez dute kanpoko esku-hartzerik edo ikuskaritzarik. Gurasoen parte-hartzea ez da bideratzen.

d. Titulaziorik altuena erizainena da (hala da zuzendariari dagokionez). Gero batxilergo pedagogikoa dutenak daude eta, laguntzaile modura, batxilerrik gabe hiru urteko ikasketak dituztenak.

e. Ez dago formazio iraunkorrik.

* 3-7ko zentroak

a. Hezkuntza curriculumak badute. Ahalegin horretan hainbat metodo erabiltzen hasiak dira, eta garrantzi handia ematen diote.

b. Tutore lanetan irakasleak daude, nahiz eta gela guztietan laguntzaileak eduki.

c. Astean 25 ordu egiten dute lan.

d. Irakasleak formatzaileak izateko aukera dute, eta kasu horietan astean 18 orduko lanaldia dute.

e. Udalaren ardura da formazioa bideratzea eta zeregin horretarako 35 pertsona dauzka.

f. Irakasle eskolak ere antolatzen du formazioa, eta kasu honetan 170 orduko ikastaro trinkoak izaten dira.

Pribatizazioaren bidean

Leku guztietako arrakasta dugu hauxe, eta Krakovian ere bide horrekin tentatuak daude. Mementoz haur eskoletako zuzendariak luzatu die eskaintza (horretarako aukera ematen duela ordenantzak), ea nor animatzen den haur eskola bereganatzera eta udalak emango dion %75eko finantziarioarekin aurrera egitera. Udalak jartzen duen baldintza bakarra kuotak asko (sic) ez igotzea da. Udalak nahi bai, baina apenas izan duen erantzunik proposamen horrek. Ikusi egin behar zein bide hartzen duen. ●

³ Erreformaren aurretik barnetegiak ohikoak ziren.

⁴ 2002an arautu zen irakaslearen formazioa. Lau maila aurreikusten dira eta maila bakoitzean lau urtez egin behar dute lan.

1) **Laguntzailea:** urtebeteko proban dagoen irakasle berria. Denbora horretan garapen pertsonaleko proiektu bat aurkeztu behar du.

2) **Irakaslea:** proiektua aurkeztu eta gainditu duena.

3) **Irakaslea:** antzinatearekin gehitzen den maila.

4) **Izendatua:** antzinatearekin gain, garapen zientifikoa erakutsi duena. Maila hau batzorde batean erabakitzen da.



Elkarbide programa Ipar-Hegoko eskolen trukeak

Bidarraiko Menditarrena aterpetxean, txanda bakoitzean bost eguneko egonaldiak egiten dituzte Iparraldeko eta Hegaldeko bi ikastetxeak. Gaztelaniaz zein frantsesez hitz egiteko chitura duten haurrek, behingoz, Bidarraien sentitzen dute benetan euskararen beharra, elkar ulertzekotan. Hala, besteen euskalkia eta erreferentzia mundua ere ezagutzen dute. Bidarraiko egonaldian ez dira falta abentura kirolak ere.

Horixe Elkarbide programa, 12-16 urte bitarteko ikastalde guztiei zabalik dagoena. Egitasmoak bi urte daramatza martxan, eta Bidarraiko Au amendi mendiko elkarbideak zein Bilboko Ziba aisialdi elkarbideak daramate.

Bidarraiko aterpetxe aurrean autobus bat. Gasteiztik dator. "Hemen dira espainolak!" autobusa seinalatuz, Kanboko haur batek, aztoratuta. "Hara hor frantsesak!" aztoratu dira autobusekoak ere, eskuak leihoan jarrita, aurpegi ezezagunetatik lehen inpresioa jaso nahian. Bost egun barru berriz aztoratuko dira aterpetxe atarian, baina oraingoan tristuraz, "Gasteizkoak badoazelako" eta "Kanbokoak agurtu behar ditugulako". Gure baitako "txip" aldaketa hori da bilatzen duena, hain justu, Elkarbide programak. "Iparraldeko eta



Hegaldeko eskolak elkartzeko beharra ikusten genuen -dio proiektuaren koordinatzaile Nagore Eubak- haurrek jakin dezaten han ere euskaldunak direla (ez "espainolak" eta "frantsesak") eta entzun dezaten besteen euskalkia.

Gainera, egoera honetan euskara bihurtzen da, beharrik, zubi hizkuntza, elkar ulertzeko erabili beharrekoa. Ikasleek, gune erdaldunetan bizi direnek, egoera honetan, behingoz, funtzionaltasuna aurkitzen diote euskarari, behingoz "ez dizut ulertzen, hitz egidazu euskaraz" esan dezakete, natural-natural.

Baina irakasleek ere badute zer ikasia esperientzia honetatik. Kanboko eta Gasteizko irakasleek azaldu digute-

nez, oso interesgarria da beste hezkuntza sistema batean dabilzanekin elkar-tu eta konparaketak egin ahal izatea. Gasteizko Pablo Perez de Obanos irakasleak gehitu duenez, "Euskal Herriarekiko duzun ezagutzaren arabera, harreman honek gehiago edo gutxiago emango dizu. Nire kasuan, esan dezaket nahiko ezjakina naizela, beraz Kanboko irakasleekin uneoro ari naiz ikasten hemen gauzak nola diren, bai hezkuntza aldetik, bai bizikeraz, eta baita hizkuntza aldetik ere".

Euskara eta abentura kirolak, bost egunetan

Bidarraiko aterpetxean bost eguneko egonaldiak eskaintzen dituzte (astelehene-tik ostiralera). Bertako begirale-

ek antolatzen dituzte egunean zeharrekoko ekintza guztiak. Kultura eta historia lantzeko txangoa egiten da Donibane Garazira, eta baita egun osoko irteera ere, Saratik Zugarramurdira oinez joanez, "sorginen bidetik". Euskalkiak lantzeko hizkuntza dinamikak (jolas bereziak) egiten dira egunero. Eta ez da falta haurren gustuko kirolak: rafftinga, eskalada, orientazioa, mendi irteera... Kirol ekintza horiek motibazioa pizteko dira eta garrantzi handia dute, "euskara eta kultura lantzea" huts-hutsik ez baita erakargarria haurrentzat.

Serge Isteke:
"Muga beti bizi da gure gogoan, eta hausten ez da erraz. Beti bada estakurua ez egiteko halako egitaraua: sobera diru dela, sobera urrun dela, sobera dela aste bat... Elkarbideren lana ere bada irakasleei motibazioa piztea, ikustaraztea Hego-Iparrekoek gauza asko egin ditzaketela elkarrekin".

Elkarbide proiektua bi elkartek daramate. Bata Auñamendi mendi elkartea da, orain 32 urte Bidarraien sortua mendia eta euskalduntasuna sustatzeko. Auñamendik bere aterpetxea jartzen du. Beste elkartea Ziba da, Bilboko aisialdi elkartea, eta Zibak jartzen ditu begiraleak. Kirol ekintzatan begirale berezituak hartzen dute parte, hain zuzen, Arteka kirol enpresakoek.

Zein eskolei zuzendua da?

12-16 urte bitarteko ikastetxe guztiei zabalik dago Elkarbide programa. Hegoaldeko eta Iparraldeko ikastetxe bi elkartzerakoan, kontuan izaten dutena adina eta hizkuntza ereduak dira. Hizkuntza ereduak ematen ditu lanik handienak pareko taldeak aurkitzerakoan. Izan ere, Iparraldean D ereduak duen bakarra Seaska da, eta Seaskak hiru kolegio eta lizeo bakarra ditu. B ereduari dagokionez ere, egoera askotarikoak dira. Iparraldeko B ereduak denbora gutxiago eskaintzen diote euskarari; asteen 10 ordu baino ez. Dena den, taldeak osatzen dira, eta parekorik topatu ezean Elkarbidek aukera ematen du Hegoaldeko herrialde desberdinetako eskolak elkartzeko ere, euskalkia lantzeko.

Ikastetxeek izena emateko garaia maiatzean izaten da, eta deialdia ikastetxe guztietara bidaltzen dute, bai internetez bai gutunez. Txandak, urtarrietik ekainera bitarte eskaintzen dituzte. Baina diru laguntzak aski ez direla-eta, sari martxotik ekainera murriztu behar dute eskaintza. Diru laguntza Eusko Jaurlaritzatik eta Akitaniako Kontseilutik jasotzen dute. Hori gabe ikastetxeek ezin dute horrelako egitaraurik egin, sobera garesti baita. Diruaz gain, beste trabarik bada ikastetxeek halakoak euren kasa antolatzeko, Auñamendi aterpetxeko arduradun Serge Istekek dioenez: *"muga beti bizi da gure gogoan. Muga hori hausteko ez da erraz. Beti bada estakurua ez egiteko halako egitaraua: sobera urrun dela, sobera dela aste bat... Gure lana ere bada irakasleei motibazioa piztea, eta ikustaraztea Hego-Iparreko ikastetxeek gauza asko egin ditzaketela elkarrekin".* •





Hizkuntza testa DBHko 1. mailako ikasleentzat



Pello ETXANIZ

Lizana ikastolako irakaslea

Askotariko testak, inkestak eta neurketak egiten dira gaur egun, eta horretara jarrita dauden enpresak edo erakundeak arduratzen dira sarritan lan horietaz. Baina Lizana ikastolako Pello Etxaniz irakasleak testak egiteko ez dela espezialista izan beharrik frogatu du. Bera Euskarako irakaslea da eta ikasleen hizkuntza maila zein zen jakiteko neurketak egiten hasi zen, ikasleen aniztasunari jarraipen zehatzagoa egiteko (ikasleen arteko aldeak berezi behar ditu testak). Pixka bat prestatuz gero, edonork egin ditzakeela dio. Horregatik, bere esperientzia kontatuko digu, gainontzekoontzat baliagarri izan daitezkeelakoan.

Nork sortu testa

Badirudi erran litekeela irakasleak aski trebaturik daudela test kontuetan, nahiz eta irakaskuntzaz at dagoen esparrutzat jo zenbaitek. Eskolaren esparruan testak hedaturik daude, zalantzarik gabe, edozein azterketa, lan, froga... test motaren bat den aldetik. Zenbaitek, ordea, testak psikologia, estatistika eta psikometriarekin lotzen ditu. Ez du horrela izan beharrik, aplikaziogunea ikastaldea bada, irakaslea bera da test egile egokiena.

Irakaskuntza eta ikaskuntzaren bidezko test planteamendu baterako argumentuetako bat zera da: irakaslea dela bere ikastaldearentzat zein test diren egokienak jakin dezakeena.¹

Gehienetan aurrez landu diren eduki, prozedura eta ariketa motak errepikatzen dira irakasleek egin ohi dituzten azterketa edo test horietan. Gainera, azterketak ez dira errepikatzen berdin-berdin, irakasleak ikasle talde bakoitzari azterketa berezia egin ohi baitio. Eskolako test gehienak lortzen testak izan ohi dira, aurretik eginko ikaskuntza ebaluatzea baitute helburu.

Zertarako testa

Oraingo honetan, ordea, helburua bertzelakoa da. Lan honetan Hizkuntza testen artean test mota zehatz bat aztertuko da, **lekutze testa** deituko duguna.

Izan ere, aurretik landuak ukaezineko eragina izan dezakeen arren, jakineko eduki eta ikaskuntza zehatzetan oinarritu gabeko testa baita. Ikasle berriak hobeki ezagutu ahal izateko, eskolan hainbat eta hainbat alditan erabili ohi diren trebetasun batzuetan duten egoera neurtzea da helburua.

Test baten egokitasuna bere helburuak erabakitzen du, hein handi batean. Lektutze testa ikasle berriak taldean banatzeko egina dago, ikaslearen oraingo mailari dagokio eta, beraz, trebetasun orokorrekin du zerikusia, ikaskuntzaren puntu jakinekin baino.

Espezifikazioaren helburuak nahiko desberdinak dira hemen eta beste test motetan, lekutze testak ezin baitizkiogu lehenagoko ikaskuntzari lotu. Zuzenagoa izan liteke "asmoez" hitz egitea, normalean helburuak baino orokorragotzat jotzen direnez.

Lektutze testen hizkuntz edukia ezin da xehetasunez zehaztu, baliagarria da, posible den neurrian, testak "zailtasun mailakatu" baten arabera moldatzea.

Lektutze testak ikasleak taldekatzeko erabili izan dira, baina bertze erabilpenik ere izan dezakete. Errate baterako, ikasleen hizkuntza trebetasunetan ezinak eta zailtasunak detektatzeko. Batez ere ikasle ezezagunak direnean, noski.

¹ Hitzez hitz "Hizkuntza testak" Itzulpen saila, HABE liburutik atera diren aipuak.

Aldi berean, test mota bat baino gehiago dira beharrezkoak. Aktibitate bat baino gehiagoren aukerak, ziur aski, ikaslearen mailaren koa dro zehatzagoa emango baitu, froga bakar batek baino. Lau hizkuntza trebetasun nagusiak (entzumena, irakurmena, idazmena eta mintzamen) neurtu beharko lirateke.

Ulermenaren alorrean kokaturiko-ak lirateke bi lehenbizikoak: irakurmena ikasgai gehienetako azalpenak idatziz iristen zaizkie; entzumena ahozko azalpen ugari entzunen dute irakasleen ahotik (aldaketak aldaketa, eskola magistralak indarrean daude).

Azkenekoak, berriz, ekoizpen gaitasunari dagozkio: idazmena oraindik ere idatzizkoaren nagusitasuna argi dago irakaskuntzan; eta mintzamen eskoletan bazterturik egon den arren goraka datorren trebetasuna.

Nola egin testa

Test on baten ezaugarriak

Test on baten hiru ezaugarriak garrantzitsuenak fidagarritasuna, baliozkotasuna eta praktikagarritasuna dira.

Fidagarritasuna

Test baten fidagarritasuna bere funtsa da. Beraz, fidagarritasunaren hiru alderdi ditugu: testa egiten deneko zirkunstantziak, nola kalifikatzen den eta egiten duen ebaluazioaren uniformetasuna.

Baliozkotasuna

Test baten baliozkotasunak neurtu nahi duena zera da: noraino neurtzea lortzen duen. Baliozkotasun mota anitz dago: edukiaren baliozkotasuna eta ageriko baliozkotasuna.

Edukia ebaluazioaren helburuak kontuan hartuz erabaki beharko litzateke. Ageriko baliozkotasunaz zer bait jakiteko bide bakarra irakasleei eta ikasleei beren iritziak emateko eskatzea da. Fidagarritasunaren eta baliozkotasunaren arteko erlazioa nahiko konplexua da. Alde batetik, test bat fidagarria izan daiteke baliozkoa izan gabe. Adibidez, hitz bakarreko itemen aukera anitzeko froga bat oso neurri fidagarria izan liteke, emaitza osatuak ematen baititu. Baina beharbada baliozkoa ez.

Test bat ezin daiteke baliozkoa izan, hala ere, fidagarria ere izan gabe. Kontrolatu gabeko ahozko test batek ez lituzke emaitza balagarriak emango, ez bailegoke ikasle baten eta beste baten artean konparaziorik egiteko oinarririk, ebaluatzaile baten eta beste baten artean, froga baten eta beste baten artean. Hori bezalako froga batean emandako 10 batek ez luke gauza handirik adieraziko.

Praktikagarritasuna

Testek ahalik eta ekonomikoen izan beharko lukete, bai denborari dagokionez (prestaketan, antolamenduan eta puntuaketan), eta bai kostuari dagokionez (materialak eta behar den denbora).

Testen espezifikazioa

Ikasleen hizkuntza maila neurtzeko hainbat proba egin ditugu guk eta eredu hauetatik abiatu gara:

- A testa: entzuteko testa, 400 hitz (bi aldiz entzunarazi) + 15 item, E-G (15 min)

- B testa: irakurtzeko testa, 250 hitz + 20 item, E; G (30 min) Hiru hauetarik bat:

+ C testa: eragingarri laburra, esperientzia pertsonalaz idatzi (15 min)

+ D testa: cloze testua, 400 hitz, hutsunea 9 hitzero, 40 item (30 min)

+ E testa: diktaketa, 150 hitz (15 min)

- F testa: elkarrizketa, 25eko zerrenda batetik 15 item (5 min)

Test denbora guztira: 60 edo 75 minutu + ikasle bakoitzak 10 minutu (F froga)

Zuzenketa:

- A testa: 30 puntu (15 item x 2)

- B testa: 20 puntu (20 item x 1)

Alternatibak:

+ C testa: 20 puntu

+ D testa: 20 puntu (40 item x 1/2)

+ E testa: 20 puntu

- F testa: 30 puntu (15 item x 2)

Guztira: 100

Testa

Ikasturte hasieran DBHko 1. mailako ikasleek egiteko testak aukeratu genituen eta espezifikazio horietatik abiatuz A, B, D eta F testak hautatu genituen.

- A testa. ENTZUMENA

Azalpen testu bat hautatu genuen test hau egiteko, ikasleentzat gai ezaguna zuena: telebista.

Testuaren segidan banatzen dira itemak, nahiz eta item batzuk erreferentzia orokorrak izan. Nolabait errateko, azken itemak testu osoari dagozkio, ez azken atalari bakarrik. Egia/gezurra motakoak.

Erantzun orria banatu baino lehen bi aldiz "irakurri" testua. Ahal den neurrian irakurketa lasaia eta esanguratsua egin, keinu eta zeinu adierazgarri jantziz. Grabaketa ez da proposatzen, "hottza" delakoan eta "kontzentrazio" arazoak sor ditzakeelakoan.

Egia/gezurra erako itemak idazteko bi oinarriko erregela daude: alde batetik esaldiek ahalik eta laburrenak eta sinpleenak izan behar dute, ez baitira ebaluazioaren xede, testua aztertze bide baizik; bestetik, ezezko esaldiak, ahal delarik, alde batera utzi, nahasgarriak izan baitaitezke.

- B testa. IRAKURMENA

Narratio testu baten hasiera hautatu genuen. Gainera, gero gelan irakurriko zuten irakurgai baten hasiera zen.

Egia/gezurra erakoa hau ere. Baina testu idatzia ikaslearen eskuetan dagoenez, itemak zehatzagoak edo zailxeagoak izan daitezke.

-D testa. IDAZMENA

Ipuin bat hautatu zen, eta hiru alternatibetatik D. C testa ebaluatzen zaila delako utzi da alde batera, subjektiboegia delako, alegia. Ebaluatzen zaila izanez gero, fidagarritasun guttikoa litzateke eta ez hori soilik, konparaketa arazoak ere sortuko lituzke. Ez dezagun ahantz testen balioetako bat konparagarritasuna dela. E testak fidagarritasun handiagoa emanen lukeen arren, bere baliozkotasuna oso mugaturik lukeela uste izan da. Cloze-en fidagarritasuna bistan dago, eta baliozkotasuna lortzen saiatu beharra zegoen.

Erabilitako cloze-a:

Hutsune bakoitzeko hitz bana.

Hutsune motak:

- *funtzio hutsuneak (juntagailuak, posposizioak, artikulua...)*

- *hutsune semantikoak (izenak, adjektiboak, aditzak, adberbioak...)*

Zuzentzeko bi sistema (dirudienez antzeko emaitzak eman ohi dituzte):

- *zehatza (jatorrizko hitza besterik ez)*

- *onargarria (jatorrizkoa bezain betegarriak onartuz)*

Test honetan hutsune banaketa hau da:

- Juntagailuak: baina, eta.

- Deklinabidea: nor sing., nor pl., nor mugagab., nor sing., nor pl., norren sing., partitiboa, nongo mugagab.

- Menpeko perpauak: denborazkoa, kontzesiboa, erlatibozkoa, moduzkoa (zuenean, arren, zaretenean, dagoen, zenean, eutsirik...)

- Aditza: zuen, zion, zatoz, dago, zitu, zirudien, badira (kasu honetan babildegaia beharrezkoa), diozu... (batez ere bigarren eta hirugarren pertsonak, orain eta lehenaldian, nor, nor-nork eta nor-nori-nork erakoak; aspektu ezberdinak: puntukaria (zirudien, dago), ohiturazkoa (egiten), etorkizuneko (barkatuko); moduak indikatiiboak eta agintera).

Test honetan zuzentzeko sistema onargarria (jatorrizkoak bezain baliagarriak onartuz) hautatu da.

-F testa. MINTZAMENA

Kasu honetarako elkarrizketa hautatu zen. Bazitekeen narrazioaren bat,

azalpenen bat edota iritziren bat eskatzea ere. Baina kasu horietan aurrez irakurri, landu edo prestaturiko zerbait behar-beharrekoa litzateke. Nahasgarria izan zitekeen, irakurritz buruz ikasiak edo ez ulertuak sor baitzitezkeen. Horregatik hautatu zen elkarrizketa. Baina nola izan lezake fidagarritasunik elkarrizketak erantzun irekiekin? Argi dago, ekoizpena objektiboki neurtu nahi bada, ebaluatzeko zailtasunak saihesti behar direna.

Lehenbiziko aldietan 15 item presatatu ziren irudi eta galderekin: galdera eta irudi bakoitzak jakineko erantzunen bat "espero" zuen. Zuzentzeko era honela planteatu zen: "erranahia" edo "komunikazioa" lortuz gero (ulertutzat jotzen bazen), itemeko puntu bana, eta gainera "egoki" eta "zuzen" eginez gero, bertze puntu bana. Emaitzak: ikasle guztiek lortzen zuten "komunikazioa" (15 puntu), eta "egokitasuna" bakan batzuek eta oso item gutitan. Laburbilduz, DTak 2 oso hein ttikia zuen (15etik 20ra), eta testak ez zuen bere eginbeharra betetzen, ikasleen arteko mailaketa, alegia.

Atal honek zailtasunak eta zailtasunak, baterako eta bertzerako norabide aldaketak eragin ditu, eta aitortu beharra dago, emaitzak ez direla fidagarriak izan, eta ondorioz, ezta baliozkoak ere.


Praktikoak bai, ordea. Egin ziren testak ikasleen "egokitasuna" eta "zuzentasuna" ebaluatu ahal izateko zein irizpide finkatu erabakitzeko lagungarriak izan ziren eta. Komunikazioa ebaluatu beharrik ez zegoela izan zen ondorioetako bat, adin horretako ikasleek hori erabat lorturik zutelako. "Egokitasuna" eta "zuzentasuna" ongi zehazten eta "fintzen" saiatu beharra zegoen. Itemez item azalduko dira guztiak, zer ekoizpen "espero" den eta zuzentzeko sistema. Hala eta guztiz ere, azken test hau da, denentzat, subjektiboena, eta ondorioz, fidagarritasun ttikiena izan dezakeena. Ebaluatzailearen arabera, bertze edozeinetan baino alde handiagoa egon daiteke. Beraz, fidagarritasun handiagoa lortzekotan, ebaluatzaile bera izan beharko litzateke ikasle guztiekin.



Idazmenean bezala, zuzentzeko eta ebaluatzeko sistema onargarria (espero izanikoak bezain baliagarriak onartuz) hautatu da.

Emaitzak

Inguru erdaldunean, euskara bigarren hizkuntza moduan ikasi duten 148 ikasleren testen emaitzen batez bertze-koak (mintzamenarenak ez dira ageri, erran bezala, lehenbiziko zuzentzeko era zela medio ez zirelako emaitza fidagarriak):

Entzumena (30)	Irakurmena (20)	Idazmena (20)	Guztira (70)
21,2789116	13,829932	9,36734694	44,47619048





Lekutze testak baliagarriak dira ikasleen hizkuntza trebetasunetan ezinak eta zailtasunak detektatzeko. Lau hizkuntza trebetasun nagusiak (entzumen, irakurmena, idazmena eta mintzamina) neur daitezke.

Datu horiei begira, deigarria da idazmeneko emaitza, bertzeak baino baxuagoa baita. Test egileen adinari behatuz uler daitekeela uste dut. Izan ere, ikasle zaharragoei test osoa egina-razi ondoren, zera ikusi dut: arlo guztietan hobekuntza dagoen arren, idazmeneko cloze testeko emaitzetan zegoela hobekuntzarik nabarmenena. Badirudi cloze testak (eta idazmenak ere orokorrean) hausnarketa, kontzentrazio eta berrikusketa-zuzenketa gaitasunak ere eskatzen dituela, hizkuntza gaitasun hutsez gain. Eta hori guztia, DBHko 1. mailaren hasieran oraindik gordinsamar dute ikasleek.

Edonola ere, testaren emaitzek ez dute ezer adierazten ahal bertze antzeko batzuekin konparatzen ez badira. Hala ere, norbaitek test hauek baliatu nahi izanez gero, izan daitezke baliagarri batez bertzeko horiek. •

Oharra: xehetasun gehiago nahi duenak, testak eskuratzeko edo bertze edozertarako, e-posta honetara jo dezake:

petxaniz@lizarra.ikastola.net

kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan

AEK eta Soraluzekeo herria elkar- lanean herriko haur etorkinak euskalduntzeko¹

Soraluze edo Plentxi -bertako biztanleek dioten bezala-, Debabarreneko herria da, 4.164 biztanlekoa. Oso herri euskalduna izate-tik espainiar estatuko etorkinak jasotzera pasa zen, 50eko hamarkada inguruan eskualde horretan industriak hartu zuen indarraren ondorioz. Hala, gaur egun, 2001eko erroldako datuen arabera, Soraluzekeo biztanleriaren % 60 euskalduna da, % 17 ia euskalduna eta % 23 erdalduna.

Gaur egun ere, Soraluze etorkin ugari jasotzen ari den herria dugu, baina badago alderik lehengo eta oraingo etorkinen artean!

Azken urteotan hirugarren munduko hainbat herrialdeetatik, batik bat Ekuadortik, 130 etorkin baino gehiago etorri dira Soraluzekeo bizitzera. Etorkin horiek beste kultura eta hizkuntza bat izateaz gain, egoera sozioekonomiko kaxkarrean bizi dira. Oro har, industriaren eta eraikuntzan lan egiten dute, eta emakumezkoen kasuan, adinekoak



Itziar ARAMAIO

Euskal filologoa

zaintzen. Hasieran bakarrik etortzen badira ere, lana aurkitu eta diru apur bat aurreztearekin batera, beraien seme-alabak eta familiak ekartzen dituzte. Haur horiek Soraluzekeo herri ikastetxean edota institutuan matrikulatzen dira, eta berorietan D ereduan baino ez dituzte eskolak ematen.

Haur edo gazte horiek bizi duten errealitateaz kontzientziatuta eta etorkinen fenomenoak urtetik urtera Soraluzekeo eguneroko bizitzan eta gizarte-an pisu eta eragin handiagoa izango duela ikusita, 2002. urtean kezka horri

erantzun bat emateko gogoz, Soraluzekeo Udaleko Euskararen Aholku Batzordea lanean hasi zen. Batzorde horretan institutuko, herri ikastetxekeo eta euskalgintzako (EHE, Pilpilean herri aldizkaria eta AEK) ordezkari baina Udaleko Euskara teknikariarekin bildu ziren. Hasiera-hasieratik helburua zein izango zen denek argi bazuten ere (haur etorkinak euskalduntzea eta euskal kulturaren eta Soraluzekeo gizartearen integratzea, beraien jatorrizko kultura kontuan izanda), horretarako erabili beharreko bidea lauso zegoen.

Institutuko eta herri ikastetxekeo ordezkariak, haur horiei eskolan ematen zitzaientz gain, eskolaz kanpoko beste euskara errefortzu batzuk eman behar zitzaizkiela zioten. Beraz, batzordeak, herri euskaltegiaren bitartez, haur horien integrazio linguistikoa nahiz kulturala bideratzea erabaki zuen.

Hala, Soraluzekeo AEK-ko ordezkariak bildu eta aurrekontu bat prestatzeko eskatu zitzaientz. Soraluzekeo AEK-ko kideak, aurretik horrelako esperientziarik izan ez zuten, aurrekontua egiteko Donostiako AEKren zentro na-

¹ Proiektu honen inguruko informazio gehiago nahi duena Soraluzekeo AEKrekin jar daiteke harremanetan: 943 751 434
Nire eskerrik beroenak Irati eta Naiarari, horren adeitsu eta jator azaltzearen proiektu honen nondik norakoak. MILA ESKER!

gusiarekin jarri ziren harremanetan. Haur eta nerabe etorkinen taldea behar berezidun taldea izango zenez, eta material didaktikoari eta esperientziei begira oraindik arlo ia desertua zenez, aurrekontua irten egin zen Soroluzeko udalak prestatuta zeukan diru kopurutik. Horrela bada, egoerak behartuta, Soroluzeko AEK-ko ordezkariak partikularki, eta ez AEKren izenean, etorkinei eskolak ematen hasia erabaki zuten.

Gauzak horrela, 2002-2003 ikasturtean sei neska-mutiko etorkinekin lanean hasi ziren Soroluzeko AEK-ko ki-deak. Ikasle gutxi baziren ere, talde oso heterogeneo baten aurrean zeuden: adin, jatorri, euskara maila, euskara ikasteko motibazio maila... desberdinak zituzten. Ahal zen neurrian, irakaslea eskola atseginak egiten saiatzen zen -jolasak eta antzekoak tartekatuz-, baina funtsean, euskarako eskola tradizionalak ziren. Erabiltzen zen material didaktikoa herriko institutuan haur horiei euskara irakasteko erabiltzen zutenaren oso antzekoa zen. Faktore desberdin horiek eta esperientzia nahiz erreferentzia faltak, azkenean, ikasturte bukaerarako, haur etorkin horiek euskaltegira gogorik gabe joatea ekarri zuen, institutuko eskolen jarraipen modura hartzen zutelako. Ikasturte bukaerarako haur horien euskara maila nahikoa hobetu bazen ere, eta alde horretatik esperientzia positibotzat jo baldin bazen ere, haur nahiz gazte etorkin horiek euskararekiko eta euskal kulturarekiko jarrera negatiboa hartu zuten, hurrengo urterako aldatu beharra ikusi zen. Helburuak adierazten zuen bezala, haur horien integrazio linguistikoz gain, kulturala ere lortu beharra zegoen, eta horretarako, euskara irakasteko beste modu bat pentsatu beharra zegoen.

Gauzak horrela, 2002-2003 ikasturteko esperientziaren balorazioa egiteko orduan, Soroluzeko Udako Euskararen Aholku Batzordekoek ez zuten esperientzia guttiz positibotzat jo, eta 2003-2004 ikasturterako, erronka bezala, euskara irakasteko beste metodologiatan pentsatu eta bi helburuak,

integratio linguistikoa nahiz kulturala, uztartzea erabaki zuten.

Beste herri batzuetako esperientziak aztertu ostean (adibidez, Urretxukoa eta Bergarako) eta ikusirik AEK bera ere kezka berri horretaz jabetuta lanean hasia zela euskara irakasteko modu ludikoagoetan pentsatzen, azkenean, Soroluzerako plangintza propio bat eratzen hasi ziren, indar berezia jarriz irakaskuntza ludikoan. Hala, filosofia horrekin, aisialdi taldeekin esperientzia zeukan irakasle bat kontratatzea erabaki zuten ikasturte hartan, haur eta gazte etorkinen euskara irakasle izateko.

Ikasturte honetan 15 haur etorkin daude matrikulatuta Soroluzeko AEKn. Ikasturte hasieran denak batera, talde bakar batean, hasi ziren eskolak hartzen, baina laster jabetu ziren talde hura heterogeneoegia zela hainbat arlotatik begirata, eta beraz, fruitu onak lortzeko banatu beharra zegoela. Hala bada, bi taldetan banatu ziren haurrak: alde batetik, Lehen Hezkuntzakoak eta, bestetik, Bigarren Hezkuntzakoak. Lehen Hezkuntzako taldean zortzi ikasle daude (zazpi ekuadortarrak eta Alcanteko bat) eta Bigarren Hezkuntzakoan zazpi (kubatar bat, koloniar bat eta sei ekuadortar). Lehen Hezkuntzako haur etorkinak astean bi egunetan joaten dira euskaltegira, astearte eta ostiral arratsaldeetan 5:00etatik 6:30era, eta Bigarren Hezkuntzakoak ostegunetan ordu berean.

Eskoletan batez ere ulermena lantzen dute, eta ekintza askotarikoak burutzen dituzte oinarriko hiztegia berrera dezaten, hala nola mahai jolasak, eskulanak, abestiak, irudiak, Internet uztartu eta abar. Hala ere, iazko esperientzia gogoan dutela, aurten arreta berezia jartzen ari dira ikasleen beraien interes pertsonaletan; hau da, euskara ikastearekin batera, ikasleak eskoletara gustura eta motibatuta joatea lortu nahi da, horrela gure hizkuntzarekiko eta kulturarekiko jarrera positiboa izan dezaten. Gauzak horrela, proiektuko arduradunek garrantzi handia ematen diote haur eta gazte etorkinek herriko



giroan barneratzeko aukera osoa izateari, eta hori bideratzeko, herriko hainbat talderekin harremanetan daude. Ikasle etorkinei talde horiek ezagutzeko eta beraietan parte hartzeko aukera ematen zaie; esate baterako, esku pilota taldean, ludotekan, "Pilpilean" herri aldizkarian eta abar. Euskal Herriko ohitura, festa edota ospakizunen inguruan ere hainbat jardura burutzen dituzte: inauteriak, Gabonak, Santa Ageda eguna, San Joan eguna, euskal dantzak, bertsolaritza... Hori guztia, betiere, beraien jatorrizko kultura eta ohiturak alde batera utzi gabe.

Bi taldeetan irakasle berak ematen ditu eskolak, Naiara Bengoetxea eibartarrak. Berak dioenez, nabari da haur eta gazte horien euskararekiko jarrera aldaketa eskolak ludikoago bihurtu direnetik. Bere hitzetan, hasieran, material didaktikorik gabe, fenomeno berri baten aurrean eta talde heterogeneo bat aurrera eman beharrak halako zirrara edo estres puntua sortzen du berran, baina aldi berean, erronka pertsonal bihurtzen da lehen unetik. Helburua, batik bat, etorkin horiek Soroluzen bai linguistikoki bai kulturalki integratzea denez, jolasak eta beraien inte-

res propioak jorratzea egoki ikusten du berak, haurren jarrera aldaketak, jarra positiboa izatera pasatzeak, euskara ikastera bideratuko baititu. Horrela, ahal den neurrian, eskolaz kanpoko hainbat jarduera egiten ere saiatzen da. Jada, esaterako, euskal dantzak ikasi dituzte, esku pilotan aritu dira, herriko gaztetxea ezagutu dute, euskal musika tresnak ikasi eta ezagutu dituzte... Hala ere, beraien jatorrizko kulturei aipamena egiten saiatzen da beti irakaslea, eta esaterako, euskal dantzak gelan ikasi zituzten egunean bakoitzak bere herrialdeko dantza tradizionalak irakatsi

zizkien besteei.

Aldi berean, irakasleak azpimarratzen du eskolen dinamika ez dela berdina Lehen Hezkuntzako taldean eta Bigarrenean, adinak berak interes batzuk edo beste batzuk izatera baikarizatza. Hala, dantzak eta kirolek txikien taldean presentzia handiagoa du; Bigarren Hezkuntzako taldean, ostera, Internetek hartzen du pisua. Internetez baliatuz gazte bakoitzak bere interes propioak bilatzen edota lantzen dituen bitartean, euskara lantzen dute.

Bai Naiarak eta bai Iratik (AEK eta Soraluzeko udaletxearen arteko bitar-

tekari lanak egiten ditu) argi adierazten dute badela alderik pasa den urteko saioen eta aurtengoen artean, eta hori argi nabaritzen dela haurrek eta gazteek gelan erakusten duten euskara ikasteko motibazioan eta gure kultura eta hizkuntzarekiko duten jarreran. Aurtun, oro har, ikasle etorkin denak gustura joaten dira errefortzu eskoletara, gehiago ikusten baitute "jolas ordu" bezala "ikas ordu" bezala baino.

Ikasturte honen ebaluazioa ekainaren bukaeran egingo bada ere, orain artekoa ikusirik, proiektu honen arduradunak pozik daude. •

Hitzaldiak

<p>Kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan gaiaren inguruko kezkei erantzunak emateko,</p> <p>∞ VII. Congreso de Inmigración. Menores y juventud, nuevos retos</p> <p>Non: Almería Noiz: 2004ko apirilak 22-24</p>	<p>www.ual.es/Universidad/Depar/CChumanas</p> <p>∞ Forum Barcelona 2004 para el diálogo multicultural</p> <p>Non: Bartzelona Noiz: 2004ko maiatzaren 9tik irailaren 26ra www.barcelona2004.org</p>	<p>∞ Inauguración de Voces sobre la diversidad lingüística y cultural</p> <p>Non: Bartzelona Noiz: 2004ko maiatzaren 9tik irailaren 26ra www.aulaintercultural.org/breve.php?id_breve=40</p>
---	---	---

Irakurleen txokoa

Azken aldi honetan, hainbat irakasle nahiz guraso etorkinek, irakasle batzuen aldetik jarrera arrazistak antzematen dituztela aipatu didate, eta egoera horren aurrean, ea zer egin daitekeen. Pertsona nahiko izan direnez gai honekin etorri zaizkidanak, gaurkoan, gai honen inguruko nire iritzi pertsonala emango dut.

Lehenik eta behin, irakasle bat arrazistatzen jotzeko, argi izan behar dugu hala dela. Argi izan behar dugu benetan jarrera arrazista baten aurrean gauden edota irakaslearen beraren espresatzeko era den desegokia (baina inolako intentzio txarrik edo arrazistarik gabe), haurrari mania pertsonala hartu ote dion (beste bati hartu ahal dion moduan), interlokutoreen arteko gaizkiulertuak ote diren, haur etorkinak zer iritzi duen irakasle konkretu horrekiko (beharbada berak ez baitu kutsu arrazistarik sumatzen eta, al-diz, ikastetxeko beste irakasleek bai), haurraren guraso etorkinek zer iritzi duten, gelako beste haurrek zer sumatzen duten eta abar.

Horrelako zerbait sumatzen dugunean, lehenengo eta behin, irakaslearekin berarekin hitz egin beharko dugu, ikusteko zein errealitatearen aurrean gauden. Benetan jarrera arrazistak baditu, zuzendariarekin hitz egin beharko da eta horrek, printzipioz behintzat, erabaki beharko du zer egin. Ate edo bide desberdinak jo arren, irakasle horren portaera ez baldin bada aldatzen, irakasle horri salaketa bat jartzea zilegi da.

Bai irakasle, bai eta guraso etorkinek, batzuek arrazoi batzuek eta bestek bestegatik, ez ditugu normalean salatzen mota honetako jarrerak dituzten irakasleak. Jarrera pasibo horrekin, ez gara jabetzen haur etorkinengan nahiz bertokoengan egiten ari garen zauri askotan senda ezinaz. Gero, ikastetxean, haurrekin kulturantzatasuna eta errespetua lantzeko proiektuak jartzen ditugu martxan, baina zertarako? Irakasleak adibiderik ez badu ematen egunerokoan, fruiturik emango ote dute proiektu horiek? Nik uste dut, Euskal Herriko irakurleen artean inor ez dela arrazista, baina badaezpada ere, nik behintzat, zuzendari banintz, kulturantzatasuna lantzeko haurrei begira dauden hain modako jolas, proiektu eta abarrak zentroan martxan jarri aurretik, irakasleekin berarekin landuko nituzke sentsibilizazio kanpainak eta kulturantzatasunaren aurreko jarrerak.

Itziar Aramaio

Kultura eta hizkuntza aniztasunaren inguruko kezkek, galderak eta zalantzak badituzu, idatziezaguzu bi helbide hauekoren batera: itziamayo@msn.com edo aldizkaria@hikhasi.com

Bide eginean jarraitzen
dugu zuen ekarpenekin
eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu
nahi dugularik.

Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa
duen edonoren parte-
hartzea gustu handiz
hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxo
euskal hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.



Berriak apirila

Argitalpenak




Gaur egun handia da
Imanol Azkue
EREIN

Ipuin honek XXI. Lizardi saria jaso zuen. Orrietan mintzo zaiguna idazle baten seme txikia da. Horra pasarte bat: "Gaur egun berezia da, saria jaso behar dugulako, eta zer gertatzen den gelankontatu beharko dut astelehenean, andereño Mertxek asteburuan zer egin dugun galdetutakoan. Bide batez, Julen Alkortak ere entzun dezala, gure aita idazlea dela jakiteko". 8 urte-tik aurrerakoentzat da •



Kludia eta baloien sekretua
Aitor Arana
IBAZABAL

Kludia neska futbolzalea da, baina neskei futboleant jokatzen uzten ez dieten garaian bizi da. Hala ere, gure neskatoak ahalegin bereziak egingo ditu gurasoei eta mutikoei berak ere futboleant egiteko eskubidea duela erakusteko. Bere ahaleginetik abentura handi bat bizitzera eramango dute. Hezkidetzat gai duen ipuin hau, 8 urte-tik aurrerakoentzat jotzen da egoki •



Pailazoaren eskuliburua
Tzirri, Mirri eta Tziribiton
Jose Inazio Ansorena
ELKAR

Liburu eder eta mamitsu honetan pailazoaren jardunaren inguruko bitxikeria eta jakingarri asko biltzen dira: pailazoaren historia, pailazo taldeak antolatzeko behar dena, pailazoaren saio eta emankizunik adierazgarrienak, hainbat esketx, abestien hitzak eta partiturak ... Material egokia da antzerkia lantzeko, pailazokeriak, irria eta umorea osagaitzat harturik •




Uratxima Kementsua
Nathalie Bodin
JEAN FRANÇOIS SAURE

Komiki xamur honek ausardia berritan zer den pentsarazten digu. Japoniako herririk batean "kementsua" izatea oso garrantzitsua da, eta frogatu beharra dago... bizi bera arriskuan jarri! Uratximak alferreko arriskueta erori nahi ez duenean koldartzat hartzen dute. Baina berari bost axola: kemena beste zer bait da beretzat. Horixe ikasi beharko dute "kementsuek" •



Hezkuntzako ikerkuntza partaidetzaren ikuspegitik: errealitatearen pentsatuz eta eraldatuz
Idoia Fernandez
UEU

Ikastola batzuetan hezkuntza aldatzea sustatzeko egin duten ikerketa prozesua azaltzen du liburuak. Ikastola horiek Hezkuntza Komunitate Diagogikoen ereduak gauzatzen hasi dira, euren errealitatea hausnartuz eta eraldatzen saiatuz •



Zer da psikoanalisia?
Aantxon Gaztañaga eta
Iñaki Glez. Garai
GAIK

Psikoanaliaren teoria nahiz praktika dira aztergai liburu honetan. Horretarako hiru kontzeptu nagusi gartzen dira: inkontzientea, super-ia eta libidoa. Horien bidez, psikoanaliaren terapien abantailak aztertuko dira eta psikoanaliak giza inkontziente sakonenean duen eragina atzemateko aukera ematen du •

Ikasleei hitz egiteko aukera eman behar zaie

Ahozkotasuna izan da hizpide aurtengo Ikastolen Elkarteko jardunaldi pedagogikoetan. Taz ere gai bera jorratu zen Euskal Herri-tik kanpoko erreferentziak eza-gutzera emanez, eta aurtun bertako esperientziak izan dira ardatz. Garbi gelditu da, irakurketak eta idazketak duten nagusitasuna ikusirik, ahozkotasuna lantzeak ere izugarriko garrantzia duela. Hala adierazi dute hitzaldiak eskaini dituzten adituek eta esperientziak martxan dituzten partaideek.

Lehen eta hirugarren egunean hizaldi teorikoak izan ziren nagusi Gasteizko Europa jauregian, eta bigarren egunean saio praktikoek hartu zuten lekukoa. Denen artean ekarpen kolektibo bat egin nahi izan da ahozkotasunak irakas-prozesuan jokatu behar duen eta joka lezakeen rolaz.

Ignasi Vila Gironako Unibertsitatean Garapen Psikologian katedradunak ideia bat plazaratu zuen: edozein pertsonak irakasle bezala hobeto hitz egiten eta entzuten, baldin eta norbaitek irakasten badio.

Baina nola irakatsi ahozkotasuna? Hori da irakasleen artean dagoen kezka eta horren garrantziaz zein zailtasunez jabetuta agertu ziren. Zentzu horretan, Ikastolen Elkarteak abian duen Hizkuntz Proiektuan ahozkotasunari leku egiten zaio. Horrela, ahozkotasuna ez dute era isolatuan lantzea planteatzen, ikaskuntza prozesuaren testuinguruan baizik. Horrenbestez, besteak beste, ahozkotasunaren garapena gainerako trebetasunekin uztartuta eta ziklo zein etapa bakoitzean pertsonak dituen beharrez erantzuten diotela



bideratu nahi dute. Bide horretan, ahozkotasuna hizkuntza ikasgai ez ezik, gainerako ikasgai eta arloetan ere landu behar dela baieztatu dute. Eta noski, gelaz kanpoko jardueretan ere bai.

Errealtateari begira jarrita, Juan Ignacio Pozo Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Oinarrizko Psikologia katedradunak zera ikusten du: batetik, ikasleei ez zaiela hitz egiteko aukerarik ematen eskolan; eta bestetik, irakasleek hizkuntza ulergaitza darabiltela. “Kimika irakasleak *kimikeraz* hitz egiten du, eta ikasleek ahalegin berezia egin behar dute ulertzeko, atzerriko hizkuntza bat entzutea bezala baita”. Ahozkotasunari bide emateko eta elkar ulertzeko, irakasleak ikasleei entzun egin behar diela azpimarratu zuen, eta haien lekuan jartzen jakin behar duela euren pentsamoldeak ezagutzeko. Horrek, noski, ikasleei hitza ematea eskatzen du.

Azken egunean Euskaltzaindiko hainbat kidek Euskaltzaindiaren “Euskalkien erabileraz. Irakaskuntzan, komunikabideetan eta administrazioan” adierazpena aurkeztu zuten, eta eskolako eguneroko jardunean euskalkien eta batuaren erabileraren inguruko gomendioak eman zituzten.



Erein-Euskadiko Kutxa eta "Donostia Opera Prima" narratiba sarien deialdia

Erein argitaletxeak Erein-Euskadiko Kutxa eta "Donostia, Opera Prima" narratiba sarien 2. deialdia egin du. Lehiaketaren helburua euskaraz idatzitako literatura bultzatzea da, eta orobat, euskal egileak sustatzea.

Euskaraz idatzitako lanak aurkez daitezke; orijinalak eta argitaratu gabek izan behar dute, eta beste ezein literatur lehiaketetan aurkeztu gabek. Lanak Din-A4 formatuko orrietan aurkeztu beharko dira (2.000 karaktere orriko) eta gutxienez 100 orrialdeko luzera izango duten lau kopia bidali behar dira.

Erein-Euskadiko Kutxa narratiba saria aurkeztutako eleberrionenarentzat izango da eta saria 12.000 eurotako izango da. "Donostia, Opera Prima" sa-

ria, aldiz, 2005 urte barruan 35 urte edo gutxiago izan edo narratiba libururik argitaratu eman gabea dela aurrez adierazi duen idazleak idatzitako eleberrion edo narratiba lan bikainenarentzat izango da. Saria 4.500 eurotako izango da.

Lanak aurkezteko epea **2004ko abenduaren 20an** amaituko da. Sari banaketa 2005eko martxoaren bigarren hambostaldian egingo da, eta urte bereko apirilaren 23rako argitaratuko dira saritutako eleberriak.

Lanak helbide honetara bidali behar dira:

Erein (Erein-Euskadiko Kutxa narratiba saria)

Tolosa etorbidea 107
20018 Donostia

Elkartasun lan brigada Kuban

Elkartasun lan brigada Kuban

Euskadi-Kuba elkarteak Elkartasun Lan Brigadetan izena emateko epea ireki du. Aurrez ere ICAP Instituto Cubano de Amistad con los Pueblos-ek antolatutako eta Euskadi-Kuba adiskidetasun elkarteak koordinatutako elkartasun brigada europarra abian da. Habana probintziako Caimito udalerrian izango da, hiriburutik 40 km-tara eta ekainaren 28tik uztailaren 18ra.

Brigadaren helburua Kubako gizartera eta herriaren errealitatera hurbiltzeko modu zuzenago eta sakonago bateskaintzea da. Bide batez, bertan bizitako esperientzien eta informazioen berri ematea ahalbidetu nahi da, herri horri buruz dagoen manipulaziotik aldentuz.

Han burutzekoa den lana eta ekintza zitrikoen eta azukre kainaberen landetan laguntzea izango da. Eta baita

noizean behin eraikuntza lanetan ere. Ez da aurreprestakuntzari eskatzen. Egozpen jardunaldiak beste ekintza batzuekin elkarbanatzen dira, hala nola, gizarte zentroetara bisitak (erietxeak, haurtzaindegia, ikastetxeak, lantegiak...), komunitate eta auzoetako herritarrekin topaketak eta Kubako hainbat gairi buruzko hitzaldiak. Modu honetan Kubako gizartearen antolaketa-

renezagupen zuzena edukitzeko eta AEBren blokeo ekonomikoak berrienganako duen eragin zuzena ezagutzeko aukera izanen da.

Izena emateko epea apirilaren 23ean amaitzen da.

Informazio gehiagorako:

Euskadi-Kuba Adiskidetasun Elkarte 944 151 107



Ordenagailu eramangarriak ikasleentzat Asteasuko Pello Errota ikastetxean



Asteasuko Pello Errota herri ikastetxean ordenagailu eramangarriak banatu ditu Microsoft enpresak 4. mailako ikasleen artean. Euskal Herrian horrelako esperientzia bat martxan jarriko den lehen aldia izango da. Guztira 12


ikasleri banatu zaizkie eta beste lau irakasleentzat izango dira. Teklatu bidez eta eskuz, bietara, idatz daiteke bertan. Orain dela hilabete inguru hasi ziren ordenagailuekin lanean eta kuaderno bezala erabiltzen du-

te. Hainbat fitxa egiten dituzte, programa multimendiak eta Internet erabili eta abar.

Microsoft enpresak iazegin zuen eskaintza hori lehendabiziko aldiz Te-

ruelgo Ariño herriko eskolan. Haren asmoa zen ordenagailu horiek eskoletan nola funtzionatzen zuten ikustea. Geroztik hainbat eskola txikitatik iritsi zaie eskaera.

Pello Errotan abian jarri duten proiektua hiru urterako izango da, eta orduan ikusiko da zein emaitza ematen dituen.



“Kontu txikiak” CD berria kaleratu du Sortzen-Ikasbatuazek etxeko txikienentzat

Sortzen-Ikasbatuaz elkar arteak “Kontu txikiak” kantu jolasen CD berria kaleratu du. Hartzaindegiko haurrei, hezitzaileei eta gurasoei zuzendutako kantak eta jolasak biltzen dira.

Aurretik euskaraz zegoen materiala haur handixeagoentzat zela ikusirik, eta hezitzaile eta guraso asko euskaldun berriak direla jakinik, horientzat lagungarri izanen da material berri hau. Sortzen-Ikasbatuazeko kideek hezitzaileen eta gurasoen beharrak zein ziren aztertuta zuten eta batez ere honako kantu motak botatzen dituztela faltan ikusi zuten: janaria ematekoak, kaka, txixa

eta haizea botatzekoak, altzoan hartu eta kulunkatzekoak, altzoan entretentzekoak, altzoan tostaka ibiltzekoak, hatzekin jolastekoak, eskuekin jolastekoak, txalokakoak, aurreneko pausok eta korrika, sehaska kantak eta korrokoak.

Guztira 48 kantu jolas herrikoi bildu dituzte CDan eta liburuxka bat ere erantsi diote kantu jolasen azalpenekin. Haurren hizkera eta onomatopeiak ere ageri dira bertan.

Lan horren osagarri izango dira hezitzaile, guraso eta irakasleentzat ematen hasi diren ikastaroak.



Muga guztien gaineratik ...euskaraz!

Iparraldeko paradisu ttipia, B ereduan Bidarraiko eskola publikoa



Bidarraiko eskola ikasle guztiak (3 salbu) B ereduan dituen eskola bakarrenetakoa da Iparraldean. Irakasle guztiak dira euskaldunak eskola honetan, eta horri esker euskararen aldeko elkarlana samurragoa da, B ereduko beste eskola gehienetan baino.

Gurasoen apustua izan zen, duela 6 urte, herriko eskola B ereduan sartzeari. Pauso garrantzitsua izan da gurasoen aldetik. Izan ere, Bidarraien euskararen transmisioa etena zegoen, gurasoek ez baitzuten hurrekin euskaraz egiteko chiturarik, nahiz euskara jakin.

Desberdina da B eredua Iparraldean eta Hegoaldean. Desberdina Bidarraiko kasua B ereduko beste eskola gehienetatik. Xehetasun guztiak kontatu dizkigute bertako irakasle bik, Elixabete Anduezak eta Leire Oartzabalek.



Bidarraiko eskolan 47 haur dabil-tza, 3 urtetik 11ra bitarte. Ehunka urte dituen eskola honetan, gurasoek B eredua jartzea erabaki zuten duela 6 urte. Egun, 3 ikasle salbu, denek ildo elebiduna jarraitzen dute. Irakasle guztiak euskaldunak dira, eta zuzendaria ikasten ari da.

Ezaugarri bereziak ditu Bidarraiek eta bertako eskolak. Herrian euskara bizirik da, baina guraso euskaldunek



galduta dute hurrei euskaraz egiteko ohitura. Hala ere, B ereduaren aldeko apustua egin dute denek. Horri esker, eskola honetan posible dira B ereduko beste eskola askotan ezin litezkeen gauzak.

Guraso euskaldunek hurrekin frantseserako ohitura

Etxean euskara entzuten dute Bidarraiko haur gehienek, baina ez aita-amen ahotik. Aitatxi eta amatxi dira euskaraz sumatzen dituztenak (adine-



ko askorentzat euskara baita duten hizkuntza bakarra). Gurasoek, berriz, euskarajakin badakite, eta aitatxi-amatxekin hala mintzatzen dira, baina ohitura hori galdua dute haurrekin, eta frantsesez egiten diete seme-alabei. Azken bi belaunaldien arteko haustura dago. Hargatik, Bidarraien familia ereduak (aitatxi-amatxi etxean izateak) garrantzi handia du euskararen transmisiorako.

Eskolan, 30 famuliatatik 5 dira kanpotik etorriak eta ez dute, beraz, aitatxi-amatxien transmisio hori etxean. Aldiz, kanpotik etorritako gurasoek interes handia izaten dute euskararekiko, eta Elixabete Andueza irakasleak gehitu duenez, *“guraso horiek entseatzen dute euskara ikastea haurren bitartez. Hori biziki motibagarria da haurrentzat, eta bertakoen maila lortzen dute”*.

Belaunaldi arteko etena egon bada goenaren, urrats handi bat eman zuten gurasoek herriko eskolan sare elebiduna sortzean. *“Gurasoen aldetik berriz euskara hitz egiteko gogo hori sumatzen dugu”* dio Elixabete Anduezak. Baina haurrekin frantsesez egiteko ohitura galtzea oso zaila omen da gurasoentzat. Ez ohitura delako soilik, mentalitate bat oso errotuta dutelako baizik. *“Gurasoentzat eskolak badu irudi bat, frantsesaren irudi hori, Errepublikaren Eskola izatearena”* nabarmendu du Leire Oiartzabal irakasleak. *“Eskolan entseatzen gara erakustea euskaraz egiten ahal dutela; hori, frantses mentalitatean, halako irekidura bat edo bada”* gaineratu du Elixabete Anduezak. Mentalitate aldaketarako eta euskarari hizkuntza baten garrantzia eman diezaioten, proiektu asko dituzte eskolan. Iaz, esaterako, haurrek sortutako ipuin batekin bideo bat muntatu zuten eta herritarrei zabaldu. Aurten literatur sariketa batean parte hartu nahi dute.

B ereduia Iparraldean

B ereduia desberdina da Euskal Herriko Hegoaldean eta Iparraldean. Iparraldean ikasgela berean egon ohi dira A ereduia eta B ereduia hautatu duten

ikasleak, oso eskola gutxi baitira ikasle guztiak B eredukoak dituztenak; eta ikasgai jakin batzuetan, ikastaldea banatu egiten da, B eredukoek euskaraz emateko ikasgai hori eta A eredukoek frantsesez jarraitzeko. Zer ikasgai izan behar duten euskaraz ere administrazioak zehaztua du. Lehen mailan (3 urtetik 11ra bitarte) zientziatako gaiak soilik dira euskaraz egiten (matematikak, zientziak). Literatura edo hizkuntza bera ez da lantzen euskaraz. *“Beraz, ez badituzu matematikak maite, ez duzu euskara maite”* dio Elixabete Anduezak.

Gela berean A eta B ereduko ikasleak egoteak euren arteko hizkuntza frantsesa izango dela esan nahi du. Eta eskola osoa ez denean B ereduan, irakasleen arteko elkarlana ere oso zaila da. Frantses irakasleak hasi omen dira, “pixkanaka”, onartzen euskarazko eredu ere badela. Baina zaila omen da frantses irakasleei ulertaraztea euskara sustatzeko egiten diren proiektuek zer garrantzia duten. Halaxe kontatu digu Elixabete Anduezak: *“Irakasleek bakkarik lan egitea maite dute. Eta elebitasuna sartu behar delarik, behar da bes-*

Bidarraien familia ereduak (aitatxi-amatxiak etxean izateak) garrantzia handia du euskararen transmisiorako. Gurasoek ez baitute haurrekin euskaraz egiteko ohiturarik.



Iparraldeko B ereduan administrazioak zehazten du zer ikasgai egin behar diren euskaraz. Lehen Mailan zientzia gaiak soilik dira euskaraz. Beraz, matematika ez baduzu maite, euskara ere ez.

te irakasleekin elkarlana egin. Haur berak ditugu frantsesez eta euskaraz, beraz, ardura denena da. Baina eskola guztia ez denean Bereduan, irakasleen elkarlana biziki zaila da”.

Bereduko irakasleek oso militanteak izan behar dute, Leire Oiartzabalek gaineratzen duenez: “gauza asko baita egiteko. Behar duzu hartu frantses irakasleek baino denbora gehiago sortzeko materiala, beste irakasleekin elkartzeko...”. Eta eskolako proiektu gehienak bi hizkuntzatan direnez, irakasleen gain dago itzulpenak egitea ere.

Indar asko eskatzen dizkio irakasleari, eta ordaina sarri ez da neurri berekoa izaten, Elixabete Anduezaeren hitzetan: “Eskola batzuetan gertatu dena da, gehiengoa A ereduan dagoela, eta aski zenuen zuk ikasleei kexaren bat egitea edo lan gehiago eskatzea, ikasleen jarrera aldatzeko eta esateko: ‘o, uzten dugu euskara!’. Hurrek hori egiten zuten eta gurasoek segitzen. Baldintzak zinez bortitzak ziren”. Gura-

soen jarrerak zer garrantzia duen ondo dakite. Haur horientzat ahalegin handia baita euskaraz ikastea. Eta etxean ez badute aldeko indarririk sumatzen, aski dute aitzakia txiki bat uzteko. Ama eskola euskaraz egiten omen dute haur gehienek; baina 7 urterekin, irakurketa-idazketa hasten denean, utzi egiten omen dute eredu elebiduna gurasoak beldur direlako. Leire Oiartzabalen hitzetan, “beste batzuetan, haur batek zailtasunak baditu matematikatan, kentzen dute euskaratik, pentsatuz euskara dela zailtasun hori ekarri diena. Eta ez da bortxaz hori, matematikak egiten zailtasunak baditu euskaraz, frantsesez ere bai”.


B ereduko eskoletan Lehen Maila bukatutakoan (11 urterekin) hurrek euskaraz zer maila lortzen duten galde-tuta, hala erantzun digu Elixabete Anduezak: “hori eskualdearen arabera-koa da. Bidarraien hurrek etxean euskara entzuten dute. Baina beste eskualde askotan, haurrentzat euskara eskolako hizkuntza soilik delarik, maila zinez apala da (baina ‘normala’ den bezala): eskolan egunean hiru oren aritzen dira euskaraz (eta hiru oreni behar zaio kendu euren artean frantsesez aritzen direna). Urtean eskolan pasatzen duten denbora %14 da. Erran nezake %14 horretatik euskaraz pasatzen dutela %5. Beraz, maila ere horren arabera-koa da”.

Bidarraiko eskolaren kezka

B ereduko paradisu txikian sentitzen dira Bidarraiko irakasleak. Eskola guztia baita B ereduan, eta irakasleen elkarlanean zein gurasoen inplikazioan nabaritzen da hori. Eskualdea ere luxuzkoa da, haurrontzat euskara ez baita “eskolako hizkuntza” soilik, kalean eta etxean bizirik dena baizik.

Euskarazko literatura lantzen hasi dira aurtan, “hurrek plazer pixka bat gehiago har dezaten”, Elixabete Anduezak dionez. Orain arte Lehen Mailan hurrek ez zuten euskarazko literaturarik irakurtzen (B ereduan zientzia gaietara mugatzen da euskara). Irakasleak egokitu behar izaten ditu ipuin asko, hurrek ez baitute ulertzen Hegoaldeko formekin idatzitako euskara batua. Dena den, Lehen Mailan ahozkoa lantzen dute gehien. Gero, Baigorriko Kolegiora pasatzen direnean, han lantzen dute euskararen gramatika. Elixabete Anduezak argi du: “idazketa hizkuntzaren bigarren etapa da. Gainera, nola euskaraz maila apala duten, behar dute anitz entzun eta ulertu, gero idatzizkora pasatzeko”.

Irakasleen kezka nagusiak bi dira: euskararen ofizialtasuna batetik, eta euskara eskolatik kanpo nola sarrarazi bestetik. Horretarako, Elixabete Andueza- ren ikasleak hasi dira beste eskoletako hurrekin idazten, “beste estakuru bat baita hurrek euskara eskolatik kanpo ateratzeko”. •



Ale monografikoak

1) Irakurketa eta idazketa konstruktibismoaren ikuspegi-tik (agortuta)



2) Marrazki ekoizpenaren bilakaera
3) Baloreak irakaskuntzan

4) Atxikimendua
5) Vigotski

6) Afektibitatea eta Sexu Hezkuntza
7) Kohlberg

8) Hizkuntza idatzia eta ikasleen aniztasuna
9) Etorrinak gure eskolan

10) Antzuola herri ikastetxearen proiektua
11) Howard Gardner

13) Jerome Seymour Bruner
12) Heriotza heziketan



hh

h kh s

u k
t k t k

2 4k U



n st n
Uzt | k l t 2

G z z
-1
rr ts l z
1 -1 3